

Osatu berri



2013ko abendua | 13. zk.

IRITZIA | 9

Laneko indarkeriarik ez!

GURE ELKARTEAK | 12-13

FEDER. Gaixotasun arraroak

GERTUTIK | 18-19

Ruper Ordorika

EUSKARA OSAKIDETZAN | 20-21

Osakidetzako Euskara Plan berria

EGOILIARREN PRESTAKUNTZA GURUTZETAKO UNIBERTSITATE OSPITALEKO ESPERIENTZIA



EUSKARA ETA BESTE JARDUERA BATZUK

Euskarak 800.000 hiztun ditu gaur egun, eta, bere garrantziaz ohartarazteko, jakin behar da munduan 7.000 milioi lagun baino gehiago daudela eta 7.000 hizkuntza baino gehiago hitz egiten direla. Laburbilduta, munduko hizkuntza guztiak kontuan hartuko bagenu, euskara 51. postuan legoke, eta, hurrenkera horren arabera, mazedonieraren zein letonieraren artean egongo litza-teke uneon. Adibidez, Wikipedian erabiltzen diren 280 hizkuntzen artean, euskara 35.a da artikulua kopuruaren arabera. Twitter, ordea, 38 hizkuntzatan soilik erabili daiteke, eta euskara dugu horietako bat.

Dena dela, ahaleginak eta lorpenak benetan adierazgarriak badira ere, errealitatea beste era batekoa da. Euskararen egoera ez da guztiz sendoa, eta UNESCOk **arriskuan** dauden beste 2.470 hizkuntzen artean sailkatu du euskaldunon hizkuntza. UNESCOren txostenean adierazten denez, munduko hizkuntzen erdiak baino gehiago galdu daitezke, eta, hori ez gertatzeko, belaunaldien arteko transmisioa bermatu behar da. Hori dela eta, **estatusa eta ospe ona** eman behar zaizkio euskarari, galdu daitezkeen hizkuntza horietako bat izan ez dadin.

Lankide baten esanetan, euskarak Osakidetzan duen egoera eta surfarena oso antzekoak dira. Halatan, orain dela 40 urte, jendea ez zegoen ohituta hondartzetan surflariak ikusten, eta oso deigarria zen halakoak ikustea. Era berean, olatuen gaineko oholtzak ere arraro samarrak ziren. Urteen joan-etorrian, ordea, oholtzarik ikusten ez denean, badirudi zerbait garrantzitsua falta dela.

Itsasoa eta euskara parean, dagoenean bonbon eta ez dagoenean egon. Halakoxea ere bada surflarien eta euskaldunon ibilbidea plangintzaren eta olatuen gainean. Hizkuntza politikak nahiz mareek erabilera eta erabilgarritasuna bideratzen dituzte neurri batean.

Surfak bainularien masifikazioa eta gaitzespena gainditu behar izan zituen, egungo kirol ikusgarria eta koloretsua bihurtzeko. Euskarak **gaztelania indartsua** du lehiakide, lanaren eta zerbitzuen munduan. Beharrezkoa eta ezinbestekoa da normalkuntzarantz jotzeko ahalegin hori bateragarritasunaren eta osagarritasunaren kontzepturantz bideratzea. Zeregin horretan, lehentasunezkoa da **erabiltzaileen eta langileen jokabidea eta euskararekiko begirunea** suspertzea.

Bi hizkuntza gizartean lehian eta konkurrentzian daudenean, diglosia egoera sortzen da askotan, estatusa eta prestigioa direla eta, baina, batik bat, hainbat eragileren ondorioz bietako bat bestea baino indartsuagoa denean. Horiek horrela, behin baino gehiagotan urratu izan dira hizkuntza ahularen eskubideak. Jarrera horrek, hain zuzen ere, hizkuntza hori giza taldetik ateratzea eta testuingurutik kentzea du helburu. Lehentasunezko hizkuntzaren nagusitasuna nabarmentzeko asmoz hizkuntzarik ahulena baztertzeko da prozedura horren arrazoibideetako (nahi gabe edo nahita). Ondorioak ondorio, jarrera hori pairatzen duen hiztunak (gehienetan zioak ulertu ez arren) neurri zuzentzaileak beharko ditu, hizkuntzarekiko atxikimendua eta bere bu-

ruarekiko estimua ez galtzeko. Horretarako, ezinbestekoa izango da gizarteko eragileen laguntza jasotzea (instituzioak, erakundeak, elkarteak...), berdintasuna lortzeko tresnak edukitzea (legeak, araudiak, behatokiak...) eta balio etikoak bereganatzea.

Benetako normalkuntzaren oinarriak indarrean egongo dira, edozein esparru linguistikotako hiztunen artean eskubideak errespetatzen badira eta berdintasunezko baldintzak benetakoak badira. Ez da bide erraza izango, baina, kontuak kontu, surfak hondartzan egin duen bezala, euskarak ere bere lekua eta prestigioa lortu beharko ditu lan eremuan. Surflarien eta bainularien antzera, euskara eta gaztelania **osagarriak eta bateragarriak** dira; hondartza eta Osakidetza bezala, biak **inorenak eta guztionak dira-eta**.

Estatutuaren arabera, euskara euskaldunen hizkuntza ofiziala da gaztelaniarekin batera, eta euskaldun guztiok daukagu erabiltzeko eta hitz egiteko eskubidea. Euskararen Normalkuntzaren Legearen arabera, euskara zerbitzu eta lan hizkuntza da, eta hori bideratzeko araudi berezia xedatu da. Dena delako hori kontuan hartuta, Euskal Administrazioak Euskara Erabiltzeko 39/97 Dekretua baliatu du, eta, horren ondorioz, araudiak nahiz prozedurak ezarri dira, administrazioko zerbitzuak ez ezik, lan munduan lankideen unitateak ere euskaraz sortu ahal izateko.

URTARRILA

10.MARGOLAN ERAKUSKETA 2014

Margolan erakusketa Donostia Unibertsitate Ospitaleko sarrera nagusian egongo da ikusgai 2014ko urtarrilaren 24tik otsailaren 24ra. Margolan erakusketan parte hartzeko lanak Komunikazio Unitatean aurkeztu beharko dira urtarrilaren 13a baino lehen.

Informazio gehiago: Komunikazio Unitatea

Hdo. ucomunicacion@osakidetza.net

MARTXOA

JARDUNALDI ZIENTIFIKOAK

Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolako Jardunaldi Zientifikoak 2014ko martxoan izango dira.

Egunak: martxoaren 20an eta 21ean.

APIRILA

OEE-REN OSASUN BILTZARRA: OSASUN HEZKUNTZA

OEEK, Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak, datorren apirilean 24. Osasun Biltzarra egingo du, Osasun Hezkuntza izenburupean.

Hitzordua 2014ko apirilaren 4 eta 5ean izango da Donostiako Miramar Jauregian.

Biltzarrak Osasun Hezkuntzako aztergaiak landuko ditu ondorengo lau mahai inguruen bidez:

- Aztura osasungarriak
- Gaixotasun kronikoak
- Heriotza
- Osasun arloko langileen hezkuntza

Komunikazioak aurkezteko epea urtarrilaren 31n bukatuko da.

www.oeeegunea.org

oee@oeeegunea.org

Argitaratzailea:

Osakidetza
 Araba kalea 45,
 01006 Vitoria-Gasteiz
 Tel.: 945 006 314
osatuberry@osakidetza.net

Erredakzio kontseilua:

Xabier Arauzo
 Juan Elorriaga

Euskara zuzentzaileak:

Juan Elorriaga
 Mikel Maioz
 EMUN lana euskalduntzeko
 kooperatiba

Koordinatzailea:

Arteman Komunikazioa

Tirada:

7.000 ale

Lege gordailua:

ISSN 2254-450X

Diseinua eta maketazioa:

Arteman Komunikazioa

Argazkiak:

Arteman
 Ruper Ordorika: Oscar Alegria

Inprimategia:

Gertu (Oñati)

Osatuberry posta elektronikoz jaso nahi baduzu, zure datuak gurera bidali besterik ez duzu. osatuberry@osakidetza.net

Osatuberrin parte hartu nahi?

Zeu ere protagonista izan zaitezke aldizkarian. Atal hauetan parte hartzeko, idatzi osatuberry@osakidetza.net helbidera.

Eta gainera...



Ezetz jakin!

Hizkuntzaren aldeko gramatikaren edo terminologiaren inguruko zalantzarik baduzu, gurera bidali eta erantzun zuzena ematen ahaleginduko gara.

Adibidez: Egokia al da Basurtuko Ospitalea idaztea? Ez, gaur egun, Basurtuko Unibertsitate Ospitalea da bere izen ofiziala. osatuberry@osakidetza.net



AURKIBIDEA

2	AGENDA
4	JAKINBERRI: Azken berriak motzean
5 8	 SAKONEAN Egoiliarren prestakuntza. Gurutzeta Ospitaleko esperientzia
9	IRITZIA Laneko indarkeriarik ez!
10 11	OSASUN URRATSAK Galdakao-Usansolo Ospitaleko Etika Asistentziala
12 13	GURE ELKARTEAK FEDER Euskadi
14 16	 PLAZATIK Igartubeiti Baserri Museoa
17	LANBIDEA Irati Maraño
18 19	GERTUTIK Ruper Ordorika
20 21	EUSKARA OSAKIDETZAN Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2. Plana
22 23	ATZERA BEGIRA Acha anaiak eta Asiako gripea.
24 25	HEZKUNTZA Euskadiko Osasun Mentaleko erizain espezialisten III. Topaketa
26	EUSKARA OSAKIDETZAN Euskararen eguna
27	TXAPELA BURUAN Plentzia

GALDAKAO-USANSOLO OSPITALEA

NEFROLOGIA ZERBITZUA GARAILE *BEST IN CLASS 2013* SARIKETAN

Galdakao-Usansolo Ospitaleko Nefrologia Zerbitzuak lehen saria eskuratu du bigarren urtez segidan, 'Best in Class 2013' sariketako 'Nefrologiako espezialitate onena' atalean. Estatuko lehen mailako arretako 160 ospitale eta zentrok parte hartu dute. Sariak emateko, hautagaiek Pazientearen Asistentziako Kalitate Indizearen (PAKI) bitartez lortutako puntuazioa hartu da oinarritzat.

Galdakao-Usansolo Ospitaleko (GUO) Nefrologiako Zerbitzua 1987an sortu zen Barruko Eskualdeko herritarren osasun beharrei erantzuteko, ondoko arlo hauei dagokienez: giltzurruneko gaixotasunen prebentzioa, nefropatien tratamendua, arteria hipertentsioa, baita giltzurruneko gaixotasun kronikoaren tratamendua ere, dialisi bidez edo giltzurrun transplante bidez. Denborarekin, Zerbitzuak beste jarduera batzuk garatu ditu modu paraleloan, kalitate eta eraginkortasunean bikaintasuna lortuz.



AUO-KO KANPO KONTSULTETAKO ERAIKIN BERRIA

Iñigo Urkullu lehendakariak Arabako Unibertsitate Ospitaleko kanpo kontsultetako eraikin berria inauguratu zuen azaroaren 4an. Osakidetza zuzendari orokorrak eta AUOko kudeatzaileek ere parte hartu zuten inaugurazio ekitaldian.

Arabako Unibertsitate Ospitaleak kanpo kontsultetako eraikin berria martxan jarri du Txagorritxu egoitzaren ondoan. Eraikin berri horrek Arabako biztanleei kalitate handiko zerbitzua ematea ahalbidetuko du. Eraikinak dituen gune zabal eta puntako tresneria teknologikoari esker, arreta sanitarioaren erreferente bihurtu da dagoeneko. Pediatrik, alergologoen eta izpi zerbitzu zein laborategietako langileek inauguratu dute eraikina. 2014ko lehen hiruhilekoan 30 asistentzia zerbitzu emango dira; ordurako erabateko okupazioa izatea aurreikusita dago.

BULARREKO MINBIZIA GOIZ DETEKTATZEKO PROGRAMA PARTE HARTU DUTEN EMAKUMEEN %98,2 POZIK

Bularreko minbizia goiz detektatzeko programari buruzko 2013ko gogobetetasun inkestaren arabera, emakumeen %99ri «beharrezkoa» iruditzen zaio bahetzea, eta %98 pozik dago antolaketarekin, tratua erekin eta profesio-naltasunarekin.

Osakidetza 1,7 milioi hitzordu eman ditu eta guztira 1,4 milioi mamografia egin dira, 6.216 minbizi detektatzea ahalbidetu dutenak, gehienak goiztiarrak.

IKTUSA, SAIHESTU DAITEKEEN LARRIALDIA?

Iktusa izan zuen hizpide Veronica Ruiz de Pereda Neurologiako Zerbitzuko erizainak, 2013ko azaroaren 20an Gurutzetako Areto Nagusian eman zuen hitzaldian. Beharrezkoa da jakitea hitza latinetik datorrela, eta kolpe edo eraso esan nahi duela. Izan ere, prozesuaren bat-bateotasuna adierazten du. Iktusa gertatzen da odol fluxua bat-batean murriztu edo eten egiten delako (kasuen %80), edo garunetan zein haren bilkintan odoljarioa (arteria baten haustura) sortzen delako (%20).

Garuneko hodieta patologia -iktusa- heriotzako bigarren kausa da Espainian, eta lehenengoa emakumezkoen artean; halaber, heriotza guztien %10 eragiten du, eta ezintasuneko lehenengo kausa da. Alegia, 14 minutuan behin, espainiar bat hiltzen da iktusaren ondorioz. Horrez gain, gastu sanitarioaren %3-%4 kontsumitzen du.

Iktusa nola prebenitu eta iktusa gertatuz gero nola jokatu behar den jorratu zuen hitzaldiak.

OSAKIDETZAKO BILBO ESKUALDEAK ZILARREZKO BIKAIN ZIURTAGIRIA ESKURATU DU

Osakidetza Bilbo Eskualdeak beste jauzi bat gehiago egin du euskararen erabilera eta zilarrezko Bikain ziurtagiria eskuratu du. 2010ean oinarritzko Bikain ziurtagiria lortu zuen. 25 osasun zentro eta 1.200 langile inguru bere baitan hartzen dituen Bilbo Eskualdea da zilarrezko ziurtagiria lortu duen Osakidetza hirugarren erakundea. Orain arteko biak erakunde txikiagoak eta ingurune euskaldunekoak izanik, azken lorpen hau bat dator Euskara Plan berriaren helburuekin eta erronka da beste erakundeentzat.



'MOBBING'-A

Zer da mobbinga?

Lan munduan langile batek beste batzuegandik hartzen duen tratua txar jarraritua, hitzezkoa edo moduzkoa. Halakoetan, beste lankide horiek krudelki jokatzeko dute langile horren aurka, haren hondamen psikologikoa lortzeko eta hura lantokitik botatzeko.

Era askotako estrategiak erabiltzen dira biktimaren aurka, esaterako, biktima azpiratu edo iraintzea, erantzukizun esparruak kentzea, eta horien ordean, eginkizun arrunt interesik gabek eskaintzea, kasurik ez egitea, baztertzeko.

Nola/Zelan sumatzen da?

Bidegabeko presioak eta kritikak: hutsegiteak eginarazi, bere ospe profesionala kendu...

Bakartzea: bazterketa, bakartze fisikoa, ez zaio berbetan uzten, esaten duenari jaramonik ez...

Erasoak duintasunari: izen ona kentzea, irain pertsonalak, burla, gutxiespen keinuak...

Ahozko bortizkeria, bortizkeria fisikoa, edo sexuala: mehatxu fisikoa, bultzakadak, ate kolpeak, oihuak, dei telefonikoak, kalteak bere ondasunetan...

Ez dago ageriko gaitzespenik edo oso hutsalak dira. Biktima harrapatuta dago, ezin du ezer egin: ez daki zer leporatzen dioten eta bere egonkortasuna galtzen du. Ez du ezer ulertzen, guztiaren errua duela uste du, eta bere onetik aterata dabilela uste du.

Gaixotu egin daiteke?

Bai. Antsietatea, depresioa, buruko minak eta osasunaren eragina duten bestelako arazoak sortu daitezke.

Zer egin daiteke?

Familia medikuak Osasun Mentaleko eta Lan Osasuneko zerbitzuetara bideratu dezake langilea, eta informazioa eman behar die sindikatuei, abokatuei eta kaltetuen elkartei.

Inportanteena da lankideek halakorik ikusten badute egoera salatzea eta erasotzailea epaitegira eramatea. Halakorik gertatuta, isiltzen dena gaizkide bihurtzen da.

Dokumentazio iturriak: Leyman 1990 Mobbing Psychological Terror; Iñaki Piñuel y Zabala, psikologoa eta ikerlaria.



EGOILIARREN PRESTAKUNTZA GURUTZETAKO UNIBERTSITATE OSPITALEKO ESPERIENTZIA

JESUS MORAN / Prestakuntza Espezializatuko ikasketaburua.

Jesus Manuel Moran Barrios, Nefrologian aditua, Prestakuntza Espezializatuko ikasketaburua da. Asturiasko Ospitalean ikasi zuen, 1963an BAME sisteman lanean hasi zen lehenengoan. Moranen ikasteko eran eragina izan zuen, medikuntza eguneko 24 orduetan bizi izaten zen, ospitalearen proiektuaren parte hartzaile sentitzen ziren, eta ikaskuntza giroa pil-pilean zegoen. Espezialitatea Gurutzetako Ospitalean bukatu zuen 1980an, eta ordutik han dihardu lanean. 1985ean Familia Medikuntzako egoiliarren tutoretza bere gain hartu zuen, 1989an Gurutzetako Ospitale osoaren prestakuntza espezializatuko ikasketen zuzendaritza hartu zuen arte. 2007. urtera arte zeregin hori ikerkuntzaren kudeaketarekin tartekatu zuen.

Zenbat egoiliar daude Gurutzetako Ospitalean?

Akreditatutako 40 espezialitate ditugu eta gehienez jota 390 egoiliar har ditzakegu, baina eskaintzaren egokitasuna dela-eta une honetan 300 ditugu. Horiei gehitu behar zaizkie Estatuko zein atzerriko zentro batzuetatik erreferentziazko zerbitzuetara etortzen diren 100-150 egoiliar, baita Bizkaiako Familia Medikuntzako beste 50 egoiliar ere.

Zer garapen izan du Prestakuntza Espezializatuak 2008ra arte?

70eko eta 80ko hamarkadetan BAME sistema medikuntza modernora bidea egiteko aldaketaren motorra izan zen. Garai hartan osasungintza publiko moderno baten alde gogor lan egiten zen,



baina 90eko hamarkadan BAME sistemak hasierako inertzia galdu zuen. Lan eginez ikasi edo mantal zuria jarraitzearen aldeko ereduak ez zituzten lehengo emaitzak ematen; funtzionatuko zuten organizazio egiturak, irakaskuntza batzorde eraginkorrak eta ardurak hartuko zituzten tutoreak beharrezkoak ziren. Hau behin betiko arautu zen 183/2008 Errege Dekretuarekin eta EAeko 2012ko Dekretuarekin.

Zerk bultzatu zintuzten 2008an Konpetentzietan Oinarritutako Prestakuntza Espezializatua (gaztelaniazko FEBC) garatzen hasteko?

2000. urtetik herrialde garatua-goetan hezkuntza medikoan egiten ari ziren berrikuntzen jakituginen. Garai berean, ohartu ginen Espainiako estatuan Prestakuntza Espezializatua ez zuela zehaztutako eredu profesionalik. Hori ikusita, Ospitaleko Zuzendaritzari eta Irakaskuntza Batzordeari zazpi konpetentzi domeinutan oinarritutako eredu aurkeztu nien. Espezialitate guztiak eredu horretara egokitzen dira. Espainiako estatuan aitzindariak izan ginen, ez, ordea, Erresuma Batua, Kanada, AEB eta Holandarekin alderatuta.

NEFROLOGOA-

Jesus Manuel Moran Barrios, Nefrologian aditua, Prestakuntza Espezializatuko ikasketaburua da.

“Zazpi konpetentzi domeinutan oinarritutako eredu, Gurutzetako, aitzindaria izan da Espainiako estatuan”.

Zeintzuk izan ziren hasierako zailtasunak?

Hezkuntza medikoari buruzko artikulu asko irakurri genituen aldaketak interpretatzeko, eta Hezkuntza Medikoaren atzerriko nazioarteko foroetara zein arlo horretan erreferente diren atzerriko zentroetara jo genuen, egiten dutena ikusi eta horien ereduak egokituta gurera ekartzeko. Antolamenduari dagokionez, ez da zailtasunik egon, alderantziz.

Zein beste eredutan oinarritu zireneten?

New Yorkeko Nazioarteko Institutuak lizentziatuentzat erabilitakoa hartu genuen oinarri, eta horri Kanadako (CanMEDS) eta AEBetako (Outcome project) espezialitateen konpetentzien laburpena gehitu genion. Gure ereduari ‘Gurutzetako Ospita-

lean mediku/profesional izatea 2008’ izena jarri genion. Bide bat eraikitzea zen asmoa, irakaskuntzaren kultura aldatzea eta hezkuntza mintzaira berria sortzea. Nazioartean Hezkuntza Medikoari lotutako zenbait forotan gure eredu aurkeztu dugu, harrera oso ona izan du eta 2009an Lilly Fundazioak saritu egin zuen.

Zer berezitasun ditu Gurutzetako ereduak?

Berezitasun nagusia da tokiakoa izateak aldaketak azkarra-go egitea ahalbideratzen duela. Hala, beste batzuentzat ere erabilgarria izan daiteke. Gainera, Gurutzetako Ospitaleko Zuzendaritzaren babes osoa izan dugu. Orain arte Espainiako estatuan beste ospitaleek egin ez duten esperientzia pilotua gauzatu dugu, eta dagoeneko beste ospitaleren batek interesa du proba egiteko.

Tutorearen papera funtsezkoa da...

Bai, tutoreak ezinbestekoak dira espezialisten prestakuntzarako, modu ofizialean izendatuta daude eta erantzukizun legala daukate. Tutoreak zaindu egin behar dira, beraien lana desinte-



resatua da, nahiz eta gure arauen arabera erregulatuta egon. Etorbizuneko gure espezialisten kalitatearen giltzarriak dira. 90 tutore ditugu. Gure proiekturako ezinbestekoa da horiek irakas-kuntzako metodologian jantzita egotea. Konpetentzietan eta horien ebaluazioan adituak diren tutoreak ditugu, hezkuntzara berrikuntzak ekarri dituztenak; eta beste tutore batzuen prestakuntzan ere lan egiten dute. Horiei guztiei eskerrak eman nahi nizkieke.

Eta zein da egoiliarren papera?

Zenbait egoiliarrek hezkuntza proiektu honetan esku hartu dute, eta esku hartzen ari dira, oso ideia onak gehitu dituzte eta, hainbat argitalpen landu izanaz gain, prestatzaileak ere badira. Hezkuntza prozesuaren oinarria apendiz da. Gogoeta, tutoreek gainbegiraturako norbere ikaste prozesua, *feedbacka*, ikaste prozesuari lotutako prestakuntza ibilbideak eta indargune eta ahulguneen erregistroa dira gizartearen eta osasun sistemen beharrei erantzungo dien ikaskuntza moderno eta aurrerakoiaren gakoak.

“Tutoreak etorkizuneko gure espezialisten kalitatearen giltzarriak dira, horregatik mimatu behar ditugu”.

Gurutzeta da apustu hau egin duen EAEko ospitale bakarra?

Bai, orain arte bakarrak gara, baina Donostialdean tutoreek ere gure eredia ezartzen hasteko asmoa daukate.

Zein da Garapen Profesionalerako Planaren garrantzia?

Ikaste prozesuaren ezaugarri kuantitatibo eta kualitatiboak dokumentatzea da ziurrenik prestakuntzaren alor garrantzitsua. Memoria, liburu edo portafolioak egoiliarrengan honako kompetenzi hauek garatzea dakar: dokumentatutako gogoeta, norbere ahulgune eta indarguneak antzemateko ebaluazioa, erakundeari begirako erantzukizuna, egitura egokiarekin komunikatzeko gaitasuna, eta ikastearekin norberak duen konpromiso pertsonala; eta tutoreak egindakoa gainbegiratzeko erreminta oso baliotsua da.

Gurutzetan egoiliarrentzat konpetentzien zazpi domeinu proposatzen dituzue...

Bai, domeinu horiek profesional baten ekintza guztiak laburbiltzen dituzte: balio profesionalak eta jokaera etikoak; komunikazio egokirako eta harremanetarako gaitasuna; ezagutza zientifikoak; osasun sisteman oinarritutako praktika; norberak ikasteko eta etengabe hobetzeko konpromisoa; eta informazio kliniko eta zientifikoaren erabilera egokia.

2013a joan zaigu. Zer pauso eman behar dituzue orain?

Emandako pausoen helburua izan da zerbitzuberu, tutore eta kolaboratzaile zuzenak diren egoiliarren masa kritikoa sortzea, eta, horrekin batera, erakundearen konpromisoa, datozen hiru urteetan tutore gehiago sakontasunez trebatzeko (bartzuk heldu berriak), bai eta konpetentzietan oinarritutako ebaluazio sistemak erabat garatzea eta gure erudian oinarritutako programak idazten hastea ere. Bidea ez da erraza, aitzindariak diren herrialdeetan ere zailtasunak dituzte beraien lanak garatzeko.

ZUZENDARIA

1989an Gurutzetako Ospitale osoaren Prestakuntza Espezializatuko ikasketen zuzendaritza hartu zuen.



JUNE UDAONDO eta ANDER GARCIA | Mediku egoiliarak

“Ezagutza praktikara eramateko, izaten, egoten eta egiten ere ikasi behar dugu”

Nolakoa da arlo akademikotik lanerako jauzia

June Udaondo: Izugarria. Alde teorikoa oso ondo ikasia izaten dugu; alde praktikoa, ordea, ez hain ondo, izan ere, oso-oso paziente gutxi ikusten ditugu ikasketak egin bitartean. Lau hormen artean eta flexiopean mila ordu egiten ditugu, lehen guardian lanbide honetako errealitatearen kontra jo eta benetako salto emateko.

Zertan datza kompetentzietan oinarritutako prestakuntza espezializatua?

J: XIX. mendean Jose Letamendik idatzi zuen "El médico que sólo medicina sabe, ni medicina sabe". Horretan datza, nire ustez. Medikuntza aspektu psikosozialak eskutik eramaten dituen zientzia dugu. Teoria ikasteak garrantzia dauka, noski, baina ezagutza hori praktikara eramateko, izaten, egoten eta egiten ere ikasi behar dugu. Hori da, zehazki, kompetentzietan oinarritutako prestakuntzarekin lortu nahi dena.

Ander Garcia: Helburua da gizartean eta osasungintzan emandako aldaketa erraldoiei erantzuna eman ahal izatea. Hala, gaur egungo medikua gai izan beharko litzateke irakatsitakoa barnerratzeko, bai eta, norbere kabuz ikasteaz gain, trebetasunak eta egoten jakitea garatzeko ere.

Orain jada prestakuntzan jasota baduzue ere, lehen intuizioz jokatu zenuten, ezta?

J: Nire ustez orain ere intuizioz jokatu dugu gehienbat. Nahiz eta kompetentzian ezarritako formazioa eta ebaluazioa jarraitu, eguneroko jardueran konturatu gabe jartzen ditugu

gu praktikan trebetasun horiek. Paziante nahiz lankideekin harremanak sakondu heinean, kompetentziak ere lantzen ditugu eta, urteak pasa ahala, gero eta trebetasun gehiago eskuratzen ditugu.

A: Lehen arlo horiek ez ziren orain bezala kontuan hartzen eta baloratzen; norberarengandik irten behar ziren. Orain, berriz, hori neurtzen dizute, eta komunikatzen; eta, horri esker, hobetzeko ahalegina egin dezakezu. Garrantzitsua da berori prestakuntzaren barnean egotea.

Nahiago duzue eredu berria?

A: Bai. Lehen medikuntza paternalistagoa zen eta pazienteak ia ez zeukan ezer esaterik. Eredu honek, berriz, komunikazioa sustatzen du, eta iritzia ematera bultzatzen zaitu. Pazientearen ongizate fisikoaz gain, ongizate psikikoa ere bada helburu, eta egiten ari zarenaren zergatiak ulertzea bilatzen du.

Zer aholku emango zenieke egoiliar berriei?

J (irribarrez): Lehenik eta behin, pazientzia izatea, eta, gero, gauzak erlatibizatzen ikastea. Izan ere, erraza da perspektiba galtzea, batez ere, 24 orduko guardia txar batetik ateratzen garenean. Egoiliar garaia gogorra baina aberasgarria da, eta ezinbestekoa benetako mediku izateko bidean murgiltzeko.

A: Autokritika egiteko gaitasuna izatea. Balorazio positiboak ere garrantzitsuak dira, baina norberarekin kritikoa izan behar da hobetu ahal izateko.



FORMACIÓN DE RESIDENTES BASADA EN COMPETENCIAS

El Hospital Universitario de Cruces es pionero en el Estado español en la formación de residentes basándose en competencias. De hecho, ya en 2008 el jefe de Estudios de Formación Especializada Jesús Morán planteó a la Comisión de Docencia y a la Dirección de Hospital de Cruces un modelo basado en siete dominios competenciales con 32 competencias genéricas. Todas las especialidades son perfectamente adaptables a este modelo.

A través de este modelo, llamado 'Ser médico/profesional en el HU Cruces 2008', se pretende fijar un camino, cambiar la cultura de la Docencia y establecer un nuevo lenguaje educativo. El proyecto ha sido presentado en los foros internacionales más importantes de Educación Médica, con favorable acogida. Este proyecto, que cuenta con el apoyo de la Dirección del hospital y las Jefaturas de servicio, tiene la particularidad, de estar elaborado y puesto en práctica en un ámbito más local, lo que podría facilitar, gracias a la importantísima colaboración de los Tutores, que el cambio sea más rápido y que sirva de modelo para otros centros.

LANEKO INDARKERIARIK EZ!

**Miguel Angel
Cabrero Garcia**

Erakunde Zentraleko Prebentzioko
zerbitziburua.

Laneko indarkeria zentroetako arrisku psikosozial behinenetakoa da. Sektore sanitariora jotzen duen edozein herritarrek eskubideak eta betebeharrak ditu. Horietako bat da profesionali begirunea eta bere jokabideekiko konfiantza ere izatea, zerbitzuak era egokian erabili ahal izateko. Izan ere, pertsonetikiko begirunea da Osakidetzaren jarduera bermatzen duten zutabe garrantzitsuenetakoa.

Hala ere, herritarren eta profesionalen arteko harremanak konplexuak direnez, batzuetan erabiltzaileen, senideen edo laguntzaileen indarkeria da Osakidetzako langileek hitzez edo kolpeka pairatzen dutena. Egitateen larritasunaren arabera, egoera horrek zenbait kalte eragiten ditu erasoak pairatu duten profesionalen osasunean. Era berean, kezka handia ere sorrarazten du Osakidetzako Zuzendaritzan. Hori dela eta, 2008an 'Osakidetzako Langileek Pairatutako Erasoak Kontrako Printzipioen Adierazpena' onetsi eta gero, hainbat neurri ezarri dira halako egoeren kontrol eta prebentziorako.

Onartezinak diren jokabide horiek saihesteko edo gutxitzeko orduan, behintzat, zenbait lan eremutan ezarritako alderdi teknikoak eta antolamendukoak ez ezik, 'Laneko Indarkeriaren Aurkako Jarduketa Protokoloa' ere badago 2007. urteaz geroztik. Dokumentu horretan, halako arriskuen aurrean dauden langileek garatu beharreko jarduketak azalzen dira, baita orientazio juridikorako gidaliburua ere.



Nola jokatu behar dute langileek erasoak pairatu ondoren?

- Ahalik eta lasterrena jakinaraziko diote bere goi-hurrengo arduradunari.
- Erakunde Oinarrizko Prebentzio Unitatera joango dira.
- Erasoak jakinarazteko erregistroa betetzen lagunduko dute.
- Gertatutakoari buruzko ahalik eta txosten zehatzena egingo dute goi-hurrengo arduradunarekin.
- Poliziaren aurrean salaketa jarriko duten baloratuko dute, eta, horretarako, Osakidetzako Aholkularitza Juridikoaren legezko aholkularitza jasoko dute.

Protokoloaren bidez, gure zentroetan halako egitateak nolako inguruabarretan gertatzen diren aztertuko da zehatz-mehatz. Horren ondorioz, halako egoerak saihesteko neurriak eraginkorrenak ezarri ahal izango dira, arriskua gutxitzeko eta lantoki seguruagoak sortzeko.

JARDUNALDIA

GALDAKAO-USANSOLO OSPITALEKO ETIKA ASISTENTZIALEKO BATZORDEA

GALDAKAO-USANSOLO OSPITALEKO ETIKA ASISTENTZIALAREN ALDEKO EKIMENAREN HAZIA 1995EKO DA, URTE HARTAN OSAKIDETZAK BIZKAIKO PROFESIONALEI ZUZENDUTAKO BIOETIKA IKASTAROA ANTOLATU ZUELAKO. BEHIN PREMIA EZAGUTUTA, LANTALDE BAT MARTXAN JARRI ZEN ETA 2001EAN BATZORDEA ERATU ZUTEN.

Etika Asistentzialaren helburuak honako hauek dira: batetik, paziente, osasungintzako langile eta erakundeen artean gatazka etikoak eragiten dituzten erabaki klinikoak aztertzea, aholkatzea eta erraztea; Osakidetzari edo erakundeari eskatzea gatazka etikoak sortarazten dituzten egoerei lotutako jokaera protokoloak egiteko; eta gainontzeko profesionalek bioetikari lotutako prestakuntza jaso dezaten lana egitea.

1995ean Bioetikari buruzko ikastaroa egin zutenean, Galdakao-Usansolo Ospitalean eta Osakidetzako beste hainbat erakunde eta ospitaletan hainbat profesionali arlo horretan sakondu eta eguneroko praktikan aplikatzeko gogoia sortu zitzaion. Gasteizko Santiago Ospitalea izan zen lehenetarikoa, baina Galdakao-Usansolon ere lanean jarri ziren berehala. Sasoi hartatik Galdakao-Usansolo Ospitaleko suspertze ikuskatzaile den Rosa Sainz izan zen lanean jarri zen horietako bat. “Ordura arte ez nekien ezer bioetikaz, baina ikastaro hartatik irteterakoan diziplina bakoitzaren diskurtso bakarraren ereduarekin erabateko apurketa egin nuen. Beste iritzi eta **pentsamoldeak** entzun eta aztertu nahi nituen”, azaldu digu Rosa Sainzek. Are gehiago, zentzu osoa hartu zion bioetikari: “Modu arautuan hausnartu gabe buruan neuzkan hainbat kezka azalera zitzazkidan, eta osasungintzako edozein profesionalen eginkizunekin bat zetozela jakin nuen une hartan”.

Hala, hainbat profesional lanean jarri ziren Galdakaon eta bidean beste asko batu zitzaizkien. Batzorde propioa eratzeko prozesua jarraitu zuten, eta 2001ean Ospitaleko gerentziaren menpeko etikari buruzko batzorde ofiziala sortu zuten. Diziplina desberdinetako profesional taldeak modu boluntarioan osatutakoa da eta hala jokatzeko dute modu ez profesionalean, baina seriota-

ROSA SAINZ
da batzordearen arduraduna.



Batzorde propioa eratzeko prozesua jarraitu zuten, eta 2001ean Ospitaleko gerentziaren menpeko etikari buruzko batzorde ofiziala sortu zuten.

sun eta **irmotasunez** lan egiten. Rosa Sainz da batzordearen arduraduna.

Rosa Sainzek batzordearen helburua eta oro har arlo asistentzialean bioetikak duena laburbildu nahi izan du: “Egoera klinikoan azterketa etiko sakonak egin da, gomendioak sortu, prozesu asistentziala hobetu dadin”.

Berez etika asistentzialeko batzordeak ez du ospitaleko zereginetan eta egunerokoan **esku hartzen**, baldin eta profesional zein pazienterik bat batzordera zuzenean zuzentzen ez bada. “Batzordea aholku ematea da, ez dugu ez araurik ez **epairik** ematen. Egiten duguna da aholkuak eta gomendioak eman”. Pazienteek, horien familiartekoei zein osasungintzako profesionalek jotzen dute batzordera gatazka etiko bat egoten den kasuetan. Hori gertatzen denean, batzordea batu eta aurkeztutako arazoa ahalik eta modu irekienean aztertzei ekiten diote. Horretarako, informazioa idatziz eskatzeaz gain, zenbait kasutan eskatzaileak berak ere azalpenak emateko eskatzen dute; eta batzuetan beste adituen batengana ere jo dezake batzordeak.

12 PERTSONAZ OSATUTAKO TALDE PLURALA

Etika asistentzialeko batzordea 12 pertsonak osatzen dute. Guztiak boluntarioak dira, baina guztiek dute betebeharrak eta zeregin zorrotza. Diziplina anitzeko osasungintzako profesionalak dira ia guztiak (medikuak, erizainak, bioetikaren prestakuntza dutenak...), baina bada, halaber, osasungintzaren alorretik kanpo dagoen pertsonarik ere. Batzordean profil horretako pertsonak ere izatea -osasungintzatik kanpo daudenak- oso positibotzat hartzen dute.

Uste horretan zeresan handia dauka bioetikaren oinarrietako batek. Hain zuzen ere, edozein gatazka etiko azterterakoan ahalik eta iritzi eta pentsamolde desberdin gehien jasotzea. Eta horren ostean, gehiengoaren ereduarekin apurtuz, erabakiak eztabaiden bitartez lortzea.

JOKABIDE GIDAK EGITEKO PROPOSAMENA

Batzordearen zeregina edo praktika da, halaber, etikaren ikuspegitik **gatazkatsuak** diren egoerak behin baino gehiagotan errepikatzen badira, hartutako erabakietan oinarritutako jokabide gidak gauzatzeko proposamena egitea. Halako batzuk garatzean, bioetikako batzordea bera inplikatu da, baina nahiago dute arlo zehatz horretako profesionalak lan hori egitea. “Nolabait protokoloak bioetikako batzordeak egiteko inertzia sor daiteke eta horri uko egiten saiatzen gara. Izan ere, profesionalak protokolo bat ondo barneratzeko ia ezinbestekoa da profesionalak beraiek lantzea, eta guk horren alde egiten dugu”, argitu du Sainzek.

PAZIENTEARI INFORMAZIOA EMATEA

Lan hori guztia egiteaz gain, funtsezkoa da pazienteak uneoro ondo informatuta izatea. Halako ahalegin eta azterketa sakonak egin ostean, erabaki medikoak uneoro ondo azaltzea eta pazientearen iritzia beti oso aintzat hartzea. “Gaur egun gertatzen diren arazoetatik ia gehienek erroa komunikazio falta da. Informazioa ematea ez da bakarrik moral kontua, legala ere bada. Pazientearen Autonomiaren Legeak derrigortu egiten gaitu hori egitera. Profesionalok barneratu behar dugu

LAN TALDEA

Etika asistentzialeko batzordea 12 pertsonek osatzen dute. Guztiak boluntarioak dira. Argazkian partaideetako batzuk.



hori ere gure eginkizuna dela, eta hori bermatu gabe ez dagoela profesionaltaz osoz jokatu dugula esaterik”.

ASISTENTZIA DESBERDINAK BATZEA

Urte asko dira Galdakao-Usansolo Ospitalean bioetikaren ikuspuntutik lanean ari direla eta azken urteetan jauzi kualitatibo bat egin dute osasungintzatik harago ere badoana. Euskal Autonomia Erkidegoko bioetika batzorde guztien arteko batzarrak egiten hasi dira. Helburua da osasungintzako zein beste maila asistentzial batzuetako ekimenak mahai berean jartzea. “Esaterako, tartera gertatzen da dependentsia daukalako egoitza batean bizi den pertsona bat ospitalean artatzea. Pertsona horrek asistentzia maila asko behar ditu, eta horregatik asistentzian dihardugun erakunde eta figura askok gure artean elkar ulertu behar dugu”. Hala, batzar hauen helburua da pertsonen asistentzia integrala bermatzea, eta horretarako guztiek ‘hizkuntza’ bera erabiltzeaz gain, norabide berean joatea.

SENTSIBILIZAZIOA ETA PRESTAKUNTZA

Bioetikako batzordearen beste eginkizun garrantzitsu bat da ospitaleko eta beste osasun zentroetako profesionalen artean bioetikaren baloreei eta baloreari buruzko sentsibilizazioa lantzea. Horregatik, urtean hainbat jardunaldi antolatzen dituzte gaiak eztabaidatu eta, ahal bada, jarraibideak emateko.

“Profesional guztiei zuzendu nahi izaten dizkiegu ekimen horiek, bioetika guztion erantzukizuna delako. Ez da nahikoa gure kompetentzia profesionalak betetzea. Gainera, pieza guztiak dira garrantzitsuak: erizaina, medikua, **jagolea**, harreraren dagoena...”.

ZINEMA ERREMINTA GISA

Antolatzen dituzten jardunaldi horien guztien artean nabarmentzekoa da, besteak beste, Etika eta Zinema deritzona. Urtero egiten dute eta abenduan amaiera eman diote seigarren jardunaldiari. “Film edo dokumentalek balio dute gaia mahaira ekartzeko; are gehiago, filmek pertsona bakoitzarengan sentsazio desberdinak sorrarazten ditu eta hori da nahi duguna”. Hala, filmaren ostean, mahai-inguruak egiten dituzte gai berari buruzko iritzi anitzak jasotzeko. Jardunaldi horiek oso aberasgarriak izan ohi dira osasungintzako profesional zein hurbileko herritarrentzat. Horregatik, arrakasta dute eta erreferente bihurtu dira eskualdean.

Esku hartu: *intervenir.*
Epai: *juicio, sentencia.*
Gatazkatsu: *conflictivo.*
Pentsamolde: *modo de pensar, mentalidad.*
Irnotasun: *firmeza, solidez.*
Jagole: *cuidador/a.*

FEDER EUSKADI, GAIXOTASUN ARRAROAK DITUZTENAK ETA HORIEN SENIDEAK BABESTEKO

FEDER EUSKADI DA GAIXOTASUN ARRARO EDO EZOHIKOEN FEDERAZIOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN DUEN DELEGAZIOA, 2008AN SORTUTAKOA. 2013AN HASI ETA 2014 MARTXORA BITARTEAN ESPAINIAKO ESTATUAN GAIXOTASUN ARRAROEN URTEA OSPATZEN ARI DA ETA, ALDARRIKAPEN KANPAINA HORI BALIATUTA, GAIXOTASUN ARRAROEI ETA FEDER-I BURUZ GEHIAGO JAKIN NAHI IZAN DUGU.



FEDER elkarte 1998an sortu zen Sevillan, farmazia laborategiek erabil-tzaile gutxi –eta, hortaz, etekin txikiak ere bai– zituzten botika batzuk ekoizteari uztea erabaki zutenean. Horren aurrean, gaixotasun arraroak dituztenen hainbat senide, ikertzaile eta medikuek elkarte sortzea erabaki zuten. Era berean, Europar Batasunak botika horien ekoizpenari eusteko aholkua eman zuen.

FEDERek, bere osotasunean, eta 2008an sortutako Euskadiko delegazioak ere pazienteei arreta egokia ematea, gaixotasun hauen diagnostikoa lortzea eta dagokien tratamendua bermatzea ziurtatu nahi dute, lehenik eta behin. Hortik abiatuta, beste hainbat helburu lortu nahi dituzte. Baina beste osasun elkarte batzuekin alderatuta zailtasun handiagoak dituzte: batetik, gaixotasun ezohikoak izanda gizartearen au-

rrean ikusaraztea zailagoa da; eta, bestetik, gaixotasun arraroen multzo barruan ezaugarri eta larritasun oso desberdineko gaitzak daude. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak emandako datuen arabera, EAEn 400.000 pertsona inguruk izan ditzakete ezohiko gaixotasunak; eta ezohikotzat hartutako 7.000 gaixotasun mota daude.

Ezohiko gaixotasunak izanda, ohikoa da halako gaixotasunen bat duen pertsonaren familiak –laguntza ezaren aurrean eta bakartasun

“FEDER elkarte 1998an sortu zen Sevillan, farmazia laborategiek erabil-tzaile gutxi zituzten botika batzuk ekoizteari uztea erabaki zutenean”.

BOLUNTARIO TALDEA.

Boluntarioek osatzen dute FEDER Euskadi elkarte; kartelaren aurrean Juana Saenz arduraduna.

horri erantzuteko– bere kabuz elkarte sortzea. Hala gertatu izan da hainbat kasutan, baita Euskal Herrian ere. Horren aurrean, FEDERek, horiekin guztiekin elkarlana sustatuz, denak bere baitan hartzen ditu, haien bazkideak ere bai.

Medikuek diagnostiko egokia asmatzea da ezohiko gaixotasunen multzoan sartzen diren pertsonen eta beraien senideek duten lehen arazo handiena. Askotan horrek luze jotzen du, eta ezinegona asko areagotzen da. Behin hori lortuta –nahiz eta ez den beti gauzatzen– premia handiena izaten da tratamendu aproposa jaso eta dagozkion botikak eskuratzea.

Gaixoen senideetako askok FEDERera jotzen dute gaixotasuna zertan datzan argitu nahian. Hala-koetan elkarteak medikuen txostenak eskatzen dizkiete ISO delakoa-ekin (Espainiako Informazio eta

Orientazio Zerbitzua) kontrastatze-ko. Horren arabera, gaixotasunari buruzko informazio zehatzagoa emateaz gain, horren inguruan lanean dabiltzan elkarte espezifiko zein espezialisten berri ematen zaie; eta baita erakundeen aldetik eskaintzen diren laguntzei buruzko informazioa ere. Are gehiago, tarteka FEDERek errehabilitazio espezializatueta adituak direnak Euskal Herrira ekarri izan ditu, bertako errehabilitatzaileak prestatzeko.

FEDER Euskadiko arduradun Juana Saenzek aitortu digu oso baliabide gutxi dituztela; izan ere, egoitza Bilboko beste elkarte batek utzitakoa da. Bizkaiko beste herri batzuetan eta Gasteizen ere ematen dute zerbitzua, udalek utzitako lokaletan; Gipuzkoan, ordea, oraindik non batzartu ere ez dute, hango erakunde publikoek ez dietelako erantzun. “Ordenagailua erosteko dirurik ez daukagu eta beharrea gaude, baina lanean jarraitzen dugu geure borondatez, egunero ikusten baitugu gure premia duen jende ugari dagoela”.

“Ezohiko gaixotasunak izanda, ohikoa da hala-ko gaixotasunen bat duen pertsonaren familiak bere kabuz elkartea sortzea”.

Elkartearen helburuak indarrean daude eta gogor dabilta horien atzetik: gaixoen eta seni-

tartekoen bizitza maila hobetzea, osasun arreta hobia eta ikerkuntza sustatzea, gaixo eta familiak elkarrekin, horien eskubideen alde egitea eta gaixok gizartearen erabat integratzea.

ZERBITZU UGARI

Halako premia duen edonori honako zerbitzu hauek eskaintzen dizkie FEDERek: gaixo eta familiak saio pertsonalizatuak; telefono zein *on line* bidezko arreta; elkarri laguntzeko talde saioak; tailerrak; sentsibilizazioa; mintegiak; eskolaren esparruko jarduerak; jardunaldi zientifikoak; aisialdirako eskaintzak eta boluntarioen prestakuntza.

Aipatutakoen artean nabarmentzen dira gizartearen eta erakunde publikoen alorrean gaixotasun arraroak hobeto ezagutzeko eta ulertzeko bultzatutako ekimenak; zer esanik ez, 2013. urte osoan eta 2014ko martxora arte ospatuko den Gaixotasun Arraroen Urtean.

Eta azpimarratzekoa da, halaber, gaixotasun arraroa duen ikasleren bat daukaten hezkuntza zentroetan eta irakasle taldeekin zein ikasleekin arlo honetan hez daitezten egiten duten lan eskerga. Hortik, esaterako, eskola material gisa erabiltzen duten “Federito” maskota, lau hostodun hirusta. Horrelako hirusta bat 10.000 hirustatik bat izan ohi da eta, gaixotasun arraroren bat dutenen kasuan, 2.000 pertsonatik batek eduki ohi du gaixotasun arraroren bat.

Zer dira ezohiko gaixotasunak?

Kronikoak eta larriak dira gaixotasun arraroak edo ezohikoak, eta jaiotzean zein nagusitzean gerta daitezke. Horietako asko genetikoak dira eta hilkortasun tasa handia dute. Gaixoen egoera zaila bada ere, senideena ere oso gogorra da, batik bat gaixotasunei eta horien inguruko laguntzei buruzko informazioa oso urria delako. Gaixotasun bat multzo horretan sartzeko, ezinbestekoa da 2.000 biztanletik gehienez pertsona batek gaixotasun hori izatea; horrek bilakatzen du ezohiko gaixotasun. Ikerketen arabera, gaur egun 7.000 gaixotasun arraro daude eta munduko biztanleriaren %6 eta %8 bitartean egon daitezke gaixotasun horietako batek jota.



FEDER Euskadi

Harremanetarako:
www.federpaisvasco.org/
 e-posta: info@federpaisvasco.org

FEDER EUSKADI, INFORMACIÓN Y APOYO EN EL ÁMBITO DE LAS ENFERMEDADES RARAS

La Federación de Enfermedades Raras (FEDER) nació en 1998 en Sevilla, cuando varios laboratorios farmacéuticos decidieron dejar de fabricar diversos fármacos por su baja demanda. Esta decisión puso en alarma a numerosos familiares de personas con enfermedades raras, médicos e investigadores que decidieron crear FEDER. En función de la normativa europea, una enfermedad rara es aquella que afecta a un máximo de una persona entre 2.000. Se trata de enfermedades crónicas y graves, que pueden manifestarse tanto en el nacimiento, así como a lo largo del proceso de vida.

Posteriormente, en 2008, nace FEDER Euskadi con el mismo objetivo: conseguir para los pacientes una buena atención, obtener diagnóstico de estas enfermedades y su respectivo tratamiento. Hay que destacar que el ámbito de las enfermedades raras cuenta con mayores dificultades añadidas que otras asociaciones, ya que tienen menor visibilidad en la sociedad y cubren un amplio número de enfermedades (aproximadamente 7.000 son consideradas enfermedades raras).

FEDER Euskadi ofrece asesoramiento personalizado e información a todos los pacientes y familiares que se lo requieren, así como sensibilización en la sociedad sobre la existencia de las enfermedades raras. De hecho, durante este 2013 y hasta marzo de 2014 se está celebrando El Año de las Enfermedades Raras.



EUSKAL BASERRIAREN ONDAREA EZAGUTZEKO PARADA IGARTUBEITI BASERRI MUSEOAN

IGARTUBEITI BASERRI MUSEOA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ZERBITZU PUBLIKOA DA, ETA EUSKAL BASERRIAREN HISTORIA, BILAKAERA ETA BERTAN BIZI IZAN DIREN BIZTANLEEN EGUNEROKO BIZIMODUA HURBILTZEA DU HELBURU, BALIABIDE HAUEN BITARTEZ: BASERRIA BERA, INTERPRETazio ZENTROA ETA BARATZE EKOLOGIKOA.

Igartubeitik balio kultural, historiko, antropologiko eta arkitektonikoen multzoa biltzen, babesten eta hedatzen du. Balio multzo horrek euskal ondarearen elementu nagusi bihurtzen ditu bikain mantendutako jatorrizko egurrezko egitura eta barruan duen sagardo dolarea. Horretarako, euskal kultur ondarearekin eta baserri munduarekin erlaziozko ai-sialdi jarduerak antolatzen ditu, produktu ekologikoen erabilera sustatuz eta ezarriz.

Eraikinaren ezaugarriak –antzinatasuna eta adierazgarri bakarra izatea– eta baserriak ia osorik zituen jatorrizko egiturak zirela eta, Gipuzkoako Foru Aldundiak erabaki zuen mota horretako arkitektura tradizionala gordetzeko Ezkio-Itsason dagoen Igartubeiti baserria erostea 1992an. Ondoren, martxan jarri zuen eredugarritzat jo den baserria berritzeko proiektua, XVII. mendean Igartubeiti baserriak zuen itxura berreskuratzeko. Hala, 2001eko udan, Igartubeiti baserriak atea ireki zituen.

“Baserria, jatorriz, XVI. mendekoa da, baina handitu egin zen XVII. mendean.

Baserria, jatorriz, XVI. mendekoa da, baina handitu egin zen XVII. mendean. Nabarmenezkoa da sagardoa egiteko erabiltzen zen habe luzeko dolarea, baserriaren elementu bereizgarrietako bat, Euskal Herrian gutxi batzuk bakarrik gelditzen baitira.

Igartubeiti baserriak beste edozeinek baino hobeki islatzen du euskal baserriaren Urrezko Arotzat hartu den sasoia. Baserria



XVII. mendearen hasieran (1630), bere garairik gorenean, zabaldu eta eraberritu zen, bizimodu eta lan mota berrietara egokitzeko. Zorionez, esku-hartze horrek ia ez zuen ukitu jatorrizko egitura, eta gaur egun ere garai bakoitzeko eraikitze moduak eta espazioen erabileran izan ziren aldaketak ikusi ahal izateko aukera eskaintzen du.

Baserriak jatorrizko zurezko egitura oso ongi kontserbatuta dauka, eta, sagardorako dolarea ere kontuan hartuta, esan daiteke Euskal Herriko baserriarik interesgarrietako bat dela, baita ondareko funtsezko elementuetako bat ere.

BASERRIAREN GARRANTZIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak erabaki zuen mota horretako arkitektura tradizionala gordetzeko Ezkio-Itsason dagoen Igartubeiti baserria erostea 1992an.

Ahalik eta jatorrizko pieza gehien kontserbatzea izan zen baserria zaharberritzeko irizpide nagusia. Hortaz, eranskin bat paratu zitzaizen soilik alde batean hondatuta zeuden piezei, eta antzeko piezak egokitu ziren oso hondatuta zeuden piezen lekuan. Geroago, denboraren joanean galdutako elementuak berreskuratu eta muntatu ziren, XVI. mendeko barruko egitura eta XVII. mendeko baserriaren irudia aurkezteko.

SAGARDOA EGITEKO DOLAREA

Baserriko behe oinean, sukaldea, upategi batez hornituriko ukuilua eta gelak daude. Sukaldeak XVI. mendean hartzen zuen leku bera

HABE LUZEKO DOLAREA

Dolarea urtean behin baino erabiltzen ez bazen ere, dolarea da baserriari halako ezaugarriak ematen dizkion elementu nagusia.



SAGARDOAREN ASTEA

Dolareko lana berreskuratu eta jendeari jardueraren haren berri zuzenean eta zehatz-mehatz ematen diote urtero urrian.

Ukuiluaren beste aldeak sagardo upelak kontserbatzeko eta tamaina handieneko laborantza tresnak (gurdiak, goldea, etab.) gordetzeko erabiltzen ziren. Behi azienda egoten zen aldearen sabaiaren, dolarearen pats askari eusten dioten zurezko pieza handien multzoa, sobigainoak, ikus daitezke.

XVI. mendean, sukaldetik sartzen ziren baserriko logela bakarretara. Zurezkoak ziren bertako paretak guztiak. XVII. mendeko handitze lanen ondorioz, hiru logela egokitu ziren baserrian.

Ganbaran elikagaiak bildu eta sagardoa egiten zen. Ganbararen erdian baserriko elementurik garrantzitsuen dago, dolarea. Pats askan pisoiz jotako sagarra ipintzen da eta horren gainean 10 m luze den habea. Muturretako batean ardatza ikusten dugu, zorua alderik alde igaro eta sukaldeko harriraino iristen dena, hain zuzen. Sagardoa egiteko dolarea urtean behin baino erabiltzen ez bazen ere, dolarea da baserriari halako ezaugarriak ematen dizkion elementu nagusia. Dolarearen neurriek zehazten dituzte eraikinararen luzera eta bolumena, pisuari eusteko zurezko pieza handiak eskatzen baititu, zutoin osoak, sekzio handiko piezak eta beste batzuk.

SASOIKO PRODUKTUAK BARATZEAN

Igartubeitiko baratza urtarorearen arabera aldatzen doa, naturaren erritmoei jarraituz eta betiere naturarako kaltegarriak izan daitezkeen produktu kimikorik erabili gabe landuz. Simaurra eta material organikoak ongarri gisa erabiltzeko konpostatzen dira, eta Ilargiari begiratzen, lanerako garairik egokiena ote den ikusteko; beraz, natura eta norbera ere zaintzen la-

guntzen duen baratze ekologikoa da. Baratze horretan barazkiak ez ezik, zuhaixkak, fruitu arbolak eta perretxikoak ere hazten dituzte, modu pedagogikoan haurrek zein helduek ikas dezaten jaten ditugun naturako fruituak nondik datozen.

Sagardotarako sagarrondo batzuk ere badira, baita udareak, irasagarrik, aranak, intxaurrek eta hurritzak ere. Ezin aipatu gabe utzi baratzaren inguruan hazten diren sendabelarrak. Hauek ere badute bere lekutxoak, eta malba, zain belarra, pasmo belarra, zauri belarra eta beste landare batzuk aurki daitezke.

“Dolarea, sagardoa egiteko erabiltzeaz gain, musika kontzerturako eszenatoki ere bihurtzen dute tarteka.

URRIAN, SAGARDOAREN ASTEA

Igartubeiti baserrian urrian ospatzen den Sagardoaren Astea da jarduerarik garrantzitsuen dago. XVI. mendeko baserriaren ohi-prozedurari jarraituz, dolareko lana berreskuratu eta jendeari jardueraren haren berri zuzenean eta zehatz-mehatz ematen diote urtero urrian. Sagarra estutuz lortutako muztioa upeletan sagardo bihurtu ondoren, martxoan, barrikotea antolatzen dute, sagardoa dastatuz eta bertsoekin gozatuz, festa giro alaietan. Igartubeiti baserriko dolarea, sagardoa egiteko erabiltzeaz gain, musika kontzerturako eszenatoki ere bihurtzen dute tarteka.

Hezkuntza programari dagokionez, ikastetxei zuzendutako ibilbide gidatuek gain, azpimarratzekoa da familientzako tailerrak ere antolatzen dituztela, hilero 2 larunbatetan. Familia txartelak ere badaude, haiei abantailak eskaintzeko. Hemendik aurrera, haurren urtebetetzea Igartubeitin bertan ospatzeko aukera izango dute.

GANBARAN

elikagaiak bildu eta sagardoa egiten zen. Ganbararen erdian baserriko elementurik garrantzitsuen dago, dolarea.

hartzten du, eta elikagaiak prestatzeko su nagusia ere mantentzen du. Higigarrien artean aipagarri dira kutxak, gakoa laratzarekin eta zizeilua, hau da, hotzetik babesteko bizkar garaiko jarleku-mahaia.

Sukaldeko atearren ondoan dolareari kontrapisua egiten dion harria eta ganbararaino doan ardatzaren abiagunea daude eta, harriaren parean, ganbarara igotzeko eskailera. Elementu horiek guztiak XVI. mendekoak dira. Ukuilua bitan banatuta dago; batetik, aziendarentzako aldea eta, bestetik, biltegia. Lehenena, abelgorrientzako askak barne, sukaldearen atzean dago. Ate irris-tatzailez ixten diren leihatila bikiak elkartzen dituzte sukaldea eta ukuilua. Atzean ardiak egongo ziren.

INTERPRETAZIO ZENTROA ETA KONTAKIZUN ZIRRARAGARRIAK



2007an Gipuzkoako Foru Aldundiak interpretazio zentroa eraiki zuen. Harrera gunea, ikus-entzunezkoen ibilbidea, erabilera anitzeko gunea (lantegi pedagogikoak eta aldi baterako erakusketak) eta denda daude. Erakusketa iraunkorrean, Igartubeiti baserriko familia eta auzotarren ahotsen bitartez ezagut daiteke nola handitu eta aldatu ziren antzinako baserriak, nola bizi ziren baserriarrak eta nola egiten zuten lana, zer harreman zituzten, zertan sinesten zuten...

Eta epe luzeagoko ekimenak ere gauzatzen dituzte. AREAGO egitasmoa, esaterako. Bertan eskuratutako sakelakoen bitartez, bi kontakizunez gozatzeko aukera dago: Maialen Lujanbioren eskutik baserri inguruko ibilbidea egin daiteke, non sagardo garaiari baserrian gertatutako pasadizo baten kontakizuna azaltzen dituzten bertsoak "ezkututzen" diren. Arantxa Iturbek sortu du bigarrena. Lau denbora eta lau pertsonaiaren ahotsak kokatu ditu museoaren inguruan, armadatik ihesi doanarena, senarretik ihesi doanarena, mundu modernotik ihesi doanarena eta etxetik ihesi ezin duenarena.

R
Resumen



CASERÍO-MUSEO IGARTUBEITI, RETRATO DE NUESTRA HISTORIA

El caserío-museo Igartubeiti es un servicio público de la Diputación Foral de Gipuzkoa y tiene como objetivo acercar a toda aquella persona interesada la historia, desarrollo y el modo de vida del caserío tradicional vasco. Cuenta para ello con tres recursos primordiales: el mismo caserío Igartubeiti, el centro de interpretación y la huerta ecológica.

El caserío se construyó en el siglo XVI, pero fue ampliado en el siglo XVII, y cuenta con la estructura de madera original. La mayoría de los expertos coinciden en que Igartubeiti es uno de los caseríos que mejor refleja la Edad de Oro de este tipo de construcciones en territorio vasco.

Otra de las particularidades principales de Igartubeiti es el lagar que conserva para hacer sidra, así como la huerta ecológica. Ambas sirven para sus promotores para interactuar con los visitantes, escolares en gran medida.

El centro de interpretación, construido por la Diputación Foral de Gipuzkoa en 2007, amplía la oferta al visitante y recopila varias sorpresas. Además, todos los años en octubre organizan la Semana de la Sidra, una cita ineludible.

“EUSKARAREKIN LAN EGITEN BETI IKASTEN DA, BETI DAUDE ERRONKAK”

IRATI MARAÑON | INTERPRETE ETA ITZULTZAILEA

Gustuko duzu egiten duzun lana?

Bai. Bitxia bada ere, administrazioko testuak itzultzea gustatzen zait. Nahiko lehorrak izaten dira baina erronka polita da. Gainera, giro majoa dago Euskara Zerbitzuan.

Zer da itzulpengintzak daukan onena eta txarrena?

Beti ikasten duzu zerbait. Euskara ez dago normalizatua, eta horrek alde on bat du: beti daudela **erronka** berriak. Hitzak eta esapideak itzultzeko moduz etengabe hausnartu behar dugu.

Itzulpen lanak administrazioarako, aholkularitza juridikorako, zein Gasteizko Erizaintza Eskolarako egiten dituzu...

Gasteizko Erizaintza Eskola ez dago EHUren egituraren barruan sartuta, Osakidetza da. Hori kudeatzeko ardura Erakunde Zentralak dauka. Orduan, guri dagokigu han sortzen den materiala itzultzea. Beste testu motekin alderatuta ezberdina da, Erizaintza Eskolakoak teknikoak baitira.

Zu bakarrik zabilta itzulpengintzan?

Ez, lau pertsona gaude. Gasteizen bi, beste bat Donostian eta beste bat Bilbon. Itzulpen enpresa batekin ere lan egiten dugu. Itzulpen luze bat jasotzen badugu eta horrek lan guztia blokeatuko digula ikusten badugu, kanpoko enpresa horri bidaltzen diogu.

Zer behar da horrelako testuak ondo itzultzeko, hizkuntzaren ezagutzaz gain?

Eskarmentua oso garrantzitsua da. Parametro batzuk ematen dizkizu, eta horrekin badakizu nondik hasi. Guk itzulpen programa batekin egiten dugu lan, itzulpen memoriarekin, eta itzultzen ari zarela errepikatu egiten diren segmentuak zuzenean bueltatzen dizkizu itzultita. Ausarta izatea ere garrantzitsua da, testua bidali di-

zunari galdetzeko beldurrik ez izatea.

Interprete lanak biziagoak dira?

Bai, eta aldaketa ongi dator: bulegoa utzi eta kabinara joatea. Mahai sektorialetan egiten dut lan eta interpretazioak beti dira antzekoak. Kabina barrutik hitz egiten dut. Zorritzarrez gehienek gatzelaniaz hitz egiten dute.

Badago asmoa etorkizunean Osakidetza jardunaldiak euskaraz egiteko?

Euskara Planean jasota dago asmo hori. Pixkanaka-pixkanaka euskararen presentzia handitu nahi da mota horretako ekitaldietan. Bartzar eta jardunaldietan egiten diren aurkezpenen %10 euskaraz izan behar dira, hori bai, kontuan hartuta nori zuzenduta dauden eta non egiten diren.

Zer da Aiaraldea.com?

Euskarazko komunikabide digital bat da. Hasieran Interneten bazarrik aritzen ginen, baina orain paperera eman dugu saltoa, 15 egunetik behin kaleratzen dugu 16 orriko alea euskara hutsean, eta dohainik. Aiaraldea politikoa gaingaitu (Arabako Aiara Kuadrilla, alegia) eta Aiaraldeko esparru naturalean eragin nahi dugu, hango albisteak bildu eta han bizi direnen berri eman. Nik proiektu horretan parte hartzen dut eta, besteak beste, literatur proposamenak idazteaz arduratzen naiz.

Zein beste zaletasun dituzu?

Mendira joatea asko gustatzen zait, Euskal Herrikoetara, **lokatza** dutenetara. Baina zinemara joatea ere bai.

Bitxi: *curioso, raro.*

Erronka: *reto, desafío.*

Eskarmentu: *experiencia.*

Lehor: *árido, pesado, aburrido.*

Lokatza: *barro.*

Zaletasun: *afición.*



IRATI MARAÑON AMURRIKOKA DA, ETA INTERPRETE ETA ITZULTZAILE LANAK EGITEN DITU APIRILETIK OSAKIDETZAKO EUSKARA ZERBITZUAN. ITZULPENGINTZA IKASKETAK BUKATU ETA GERO ALEMANIAR FILOLOGIA IKASI ZUEN. EUSKARA ETA GAZTELANIAREKIN LAN EGITEN DU OSAKIDETZAN, ETA LEHENAGO AUTONOMO MODUAN ERE IBILI IZAN DA ITZULPENAK EGITEN. AISIALDIAN IRAKURTZEA ASKO GUSTATZEN ZAIO.

“AGERTOKI- ETARA IGO NINTZEN EUSKAL MUSIKAN EZ ZELAKO MAITE NUENA LANTZEN” RUPER ORDORIKA



‘HAUTSI DA ANPHORA’ DISKOAREKIN, 1980AN, USTEKABEAN EZAGUTU GENUEN RUPER ORDORIKA. EUSKAL KANTU TRADIZIONALAREN ETA MODERNOAGOAREN ARTEKO ZUBI LANA EGIN ZUEN OÑATIARRAK ETA JARRERA ARTISTIKO SENDO BAT LANDU. IBILBIDE OSO EMANKORRA EGIN DU, ETA BELAUNALDI DESBERDINAK ERAKARRIZ EUSKAL ARTISTA EZAGUNENETAKOA DA. DISKO BERRIENEAN, ‘AZUKRE KOXKORRAK’, 80KO HAMARKADAKO TALDEEN BERTSIOAK EGIN DITU.

Dena krisian dagoen honetan, zer zarete musikariak gizartearentzat?

Herri musika eta kantuak gizartearen hastapenean daude, eta musikariok gizakiaren eginbehar bat betetzen dugu. Musika zen ospakizuna, dantzarako, jaietarako, baina baita heriotzarako, elizarako, liturgia guztietarako... Beti izan da zerbait seinalatua gure gizartean. Orain ez, orain kontsumo gaia da. Baina zuzenekoak gordetzen du oraindik ere ospakizun puntu hori, eta egile moduan ez dugu galdu behar erritualek duen hori.

Nolatan bertsioren bilduma?

Ganbaran nekarren disko bat izan da. Argitaratu eta gero sentitzen dut zama bat kendu dudala. Irageanean orain baino askoz kritikago nintzen nire sasoi aurreko musikariekin, bestela ez nuen egingo ‘Hautsi da Anphora’. Denok oinarritzen gara aurrekoaren **ukazioan**. Baina denboraz beste balio batzuk ikusi ditut kantu horietan.

Disko hau grabatzearekin bat, bakarkako emanaldiak ematen ibili zara. Zer-nolako esperientzia izan da?

Asko ikasi dut bakarka, eta 2014an errepikatzeke asmoa dut. Beste sonoritate batzuk bilatzeko aproposa da eta, aldi berean, ispilu aurrean jartzen zaitu, beste era batera eman behar delako. Oso ondo sentitu naiz nire ezintasunean, lan gehiago egin behar duzulako. Eta uste dut jendeak ondo pasatu duela. Azpiegitura kontuengatik taldearekin ezin denean bakarka arituko naiz.

Nire iritziz izan zara folkiegia eta intelektualegia rockeroentzat, eta agian rockeroegia eta abangoardista samarra folkientzat...

Lehen bai, baina gaur egun etiketa horiek gaindituta daude. Niretzat rocka da nire sasoi herri musika, mundua hobeto ulertzen lagundu didana, ez da riff jakin bat, orrazkera bat edo janzkera bat. Rockak bidea eman zigun hirietan eta herrietan musikan eskolatu ga-

Zer helburu jarri zenituen kantuan hasi zinenean?

Musikazalea izan naiz mutikotatik, baina **agertokira** igotzea pauso handia izan zen. Euskal musika entzuten hasi nintzenean –aurretik ingelesez egina entzuten nuen gehienbat– ikusi nuen ez zela maite nuena lantzen. Horregatik hasi nintzen, nahiz eta nire burua agertoki gainean ez ikusi. Pott Bandaren ingurukoek bultzatu ninduten horretara: Bernardo Atxagak bereziki, baita Jose Mari Iturralde, Sarrionandiak, Juaristik, Natxo de Felipek eta beste batzuek ere.

GAURKOTU

80ko hamarkadako hainbat talderen kantuak bere egin ditu eta ‘Azukre koxkorra’ diskoan ekarri ditu gogora.



“Kantua guztiz osasungarria da, norbere barrutik **barrenak** ateratzeko modu oinarrizkoa, gizakiaren espresioa”.

beko hainbat jende elkartzeko, taldeak egin, kantuak gozatu eta batzuetan jarrera artistiko sendo bat lantzeko. Eta Euskal Herrian nik zorte handitzat dut gure aurreko zenbait musikaririk egin zuten uztar-keta: Ez Dok Amairu, Oskorri, Iparraldeko musikari handiak...

Zer bilatzen duzu zuk kontzertu bat ikustera eta entzutera joaten zarenean?

Zerbait deskubritzea. Baina onartu beharra dut deformazio pittin bat daukadala. Batzuetan bizpahiru piezarekin badakit zer ikusiko dudana eta hori ez da ona. Baina inon espero ez duzun lekutik aurkitu daiteke zerbait ona... Eta tarteka talde oso interesgarriak aurkitzen ditut. Udan, Berri Txarrak ikusi nuen eta, nahiz eta jakina den, oso talde landua iruditu zitzaidan. Horrez gain, John Zornek egin zuen kontzertua ikaragarria iruditu zitzaidan.

“Hautsi da Amphora’. Denok oinarritzen gara aurrekoaren ukazioan. Baina denborara beste balio batzuk ikusi ditut kantu horietan”.

Gasteiz bera oso iltzatuta daukazu bihotzean. Hiriak zeresan handia izan du batez ere zure musikari hastapenean...

Bai. 11 urterekin Oñatitik Gasteizera joan nintzen, baina horrek areagotu zuen nire oñatiartasuna. Beti izan dut gogora harako eta hangoa naiz. Baina Gasteizen urte asko egin ditut han familia dudalako. Eta kantuan hasi nintzenean urte asko egin nituen Gasteizen finkatuta. Han aurkitu nituen orduan Fausto taldean aritzen ziren Angel Celada eta baxu jotzailea, Bixente Oskorrikoa, Oloki Potato egin zuena... Horrela osatu nuen taldea. Eta gerora De La Casa anaiekin-eta Gasteizen finkatu ginen. Josu Zabala ere nire lehen hiru diskoetan dago. Txanpi eta Gari ere oso gertukoak izan ditut. Montoia nire eskolako laguna...

BELAUNALDIK BATU

Ordorikak oso aintzat dauka bere aitzindariarik utzitako ondarea eta belaunaldien artean bidea egiten dihardu.

Besterik gehitu nahi...

Kantua guztiz osasungarria da, norbere barrutik barrenak ateratzeko modu oso oinarrizkoa, munduko tribu guztiek egiten dute kantuan, gizaki guztiek, ondo edo txarto, eta hori ez da kasualitatea, hori da gizakiaren espresio bera eta oso barrutik datorrena. Ez dut deus deskubritzen horrekin, baina komeni da noizbehinka hori azpimarratzea, ahaztuta bizi garelako. Eta entzuleentzat ere musikak asko du sendagarritik.

Agertoki: *escenario.*

Barren: *conciencia, interior.*

Emanaldi: *actuación, función.*

Hastapen: *inicio, comienzo.*

Iltzatu: *clavar.*

Ukazio: *negación.*

OSAKIDETZAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO

EUSKARAREN BIGARREN PLANA ONARTUTA



ABENDUAREN 3AN, EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNEAN, ONARTU ZUEN OSAKIDETZAKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK OSAKIDETZAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 2. PLANA. ETA BI EGUN GEROAGO, OSAKIDETZAKO ERAKUNDE ZENTRALEAN, GASTEIZEN, AURKEZTU ZUEN OSAKIDETZAKO ZUZENDARI NAGUSI JON ETXEBERRIAK, JON DARPON OSASUN SAILBURUAK ETA PATXI BAZTARRIKA HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEAK LAGUNDUTA.

Abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, onartu zuen Osakidetza Administrazio Kontseiluak Osakidetza Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2. Plana. Eta bi egun geroago, Osakidetza Erakunde Zentralean, Gasteizen, aurkeztu zuen Osakidetza zuzendari nagusi Jon Etxebarria, Jon Darpon Osasun sailburuak eta Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikarako sailburuordeak lagunduta.

Osakidetza Erakunde Zentralean, Gasteizen, izan zen aurkezpen ekitaldia, eta goraino bete zen ekitaldi aretoa Euskara Planaren berri izateko. Osakidetza zuzendari nagusi Jon Etxebarria izan zen hitza hartu zuen lehena.

Jon Etxebarria ahotan hartu zuen 2005ean onartu eta 2013ko maiatzean bukatutzat eman zen Osakidetza Lehen Euskara Plana; eta ongietorria egin zion 2013ko abenduaren 3an abian jarriko den sei urteko Plan berriari. Osakidetza

2. Euskara Plan honek bi ebaluazio izango ditu: bata hiru urtera, eta bestea sei urtera.

Zuzendari nagusiak gogora ekarri zuen 2. Plana idazterakoan oso lagungarria izan dela lehenengoarekin egindako bidea eta gaur egun euskarak Osakidetza dituen **indargune** eta **ahulguneak** ondo detektatuta izatea. Hala, Plan berriaren helburuak dira hizkuntza eskubideak errespetatzea, arreta zerbitzua hobetzea eta mailaka lan egitea; edo, zehatzago esanda, Osakidetza barne zein kanpoko harremanetan euskararen presentzia bermatzea, ahoz zein idatziz.

“Osakidetza euskarak aurrerapauso garrantzitsuak egin ditu, baina pauso horiek ez dira arlo guztietan berdina eman”. Are gehiago, azpimarratu zuen euskararen aldeko lanean ezinbestekoa dela “zuzendaritzan gaudenok erantzukizun handiagoa hartzea”.

ZUZENDARI GUZTIEN KONPROMISOA ETA LIDERGOA

Ildo beretik hitz egin zuen Osasun sailburu Jon Darponek. Behin eta berriro aipatu zuen euskararen aldeko erronkan “zuzendaritzan dauden pertsona guztien konpromisoa ezinbestekoa” dela, “euskara dakitenena zein ez dakitenena”. Era berean, Osasun sailburuak azpimarratu zuen euskalduntze prozesua ezin dela mugatu hizkuntza eskakizunak lortzera. “Profilak ez dira helburua, bitartekoak baizik”, zehaztu zuen.

Jon Darponek Jaurilaritzak Osakidetza emandako babes **goraipatu** zuen: “Osakidetza Eusko Jaurilaritzaren aurrekontu handiena du, eta Euskadiko pertsona gehiagorekin harremana duen enpresa publikoa da”. Are gehiago, osasuna eta konfiantza bat datozela azpimarratu zuen, eta horretarako hizkuntza ezinbesteko tresna dela, zerbitzua hobetzen duelako.

Hizkuntza Politikarako sailburuorde Patxi Baztarrikak ere jauzi garrantzitsutzat hartu zuen 2. Planaren erronka, eta txalotu egin zuen Jon Darponek kargua hartzean euskararekin lotuta emandako hitza berretsi izana. Azken 20 urteotan euskarak administrazioaren barruan osasungintzan egindako aurrerapauso izan zuen hizpide, eta euskarari bere lekua emango dion “elebitasun sozial orekatuago” baten aldeko **aldarria egin** zuen. Osakidetza zuzendari proaktibo izateko eskatu zien, euskararen hazkundearen **giltzarria** helburu horretan lidergoa izatea delako.

Ahulgune: *debilidad, punto débil.*

Aldarria egin: *reivindicar, reclamar.*

Giltzarri: *pieza clave.*

Goraiatu: *ensalzar, elogiar, aplaudir.*

Indargune: *fortaleza, punto fuerte.*

Jokatu: *actuar, proceder.*

BIGARREN EUSKARA PLANAREN ARDATZ NAGUSIAK

Osakidetzako zuzendari nagusi Jon Etxeberriak eman zituen aurkezpean Bigarren Euskara Planaren ardatz nagusiak.

Lehenik eta behin, herritarren eskariari aurrea hartzea, euskarazko arreta eskatzeko ardura erabiltzaileen esku utzi gabe. Ondorioz, neurriak hartu behar dira erabiltzaileei egingo zaizen harreran eta emango zaizkien asistentzia zerbitzuetan erabiltzaileek beraiek lehenetsitako hizkuntza erabiliko dela bermatzeko, bai Lehen Mailako Arretan, bai Arreta Espezializatuan.

Bigarrenik, osasun asistentziaren eremuko dokumentuetan arreta berezia jartzea, baita historia klinikoa osatzen duten dokumentu klinikoetan ere.

Hirugarrenik, barne harremanei dagokienez, aurrerapausoak eman

behar dira zerbitzu erakundeek beraien enplegatuekin izaten dituzten harremanetan, eta profesionalei euskaraz lan egitea errazteko baliabideak eskaini behar zaizkie.

Eta azkenik, Osakidetzako eta zerbitzu erakundeetako zuzendaritza taldeen konpromisoa, bultzada eta lidergoa.

LAN ILDO NAGUSIAK, SEI MULTZOTAN BANATUTA:

- Irudi komunikazioa eta kanpo harremanak: hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak bateratzea; erabilera irizpideak langileei helarazteko tarteko arduradunak eta agintariak inplikatzeko; euskararen presentzia areagotzea aldizkarietan, argitalpenetan, jardunaldietan eta kongresuetan, bai eta dokumentazio klinikoan ere; zerbitzu elebidunak eskaintzea baldintzak betetzen diren unitate eta diziplinetan; erabiltzaile eta pazienteen hizkuntza eskubideak jaso eta horren arabera **jokatu**; eta 'Euskaraz Bai Sano!' kanpaina aurrera eramatea.

- Barne harremanak: langileek hobesten duten hizkuntzaren berri izan eta horren arabera jokatzeko; etengabeko prestakuntzan euskararen presentzia areagotzea; eta lanpostuko euskarazko trebakuntzan sakontzea.

- Hizkuntzaren kudeaketa: Osakidetzaren zerbitzu kontratatuetan euskararen inguruko planifikazioa kontuan hartzeko ahalegina; ziurtatu Euskara Plana sustatzeko ardura zuzendaritza guztien artean egokiro konpartitua izatea; programa kontratatuetako kalitate irizpideen artean hizkuntzaren normalizazioa sartzea; langileen artean sentsibilizazio kanpainak martxan jartzea; eta euskararen sustapenean parte hartzen dutenak saritzea.

- Lehentasunezko unitatea: euskaraz lanpostuetan derrigortzea eremu linguistikoaren arabera; lehentasunezko unitate berriak kontuan hartzea; zerbitzu erakundeek enplegatuekin euskara gehiago erabiltzea; eta zuzendaritza taldeek konpromisoa hartzea.



JON ETXEBERRIA

Osakidetzako zuzendari nagusiak Bigarren Euskara Planaren apustua nabarmendu du.

JON ETXEBERRIA.

Osakidetzako zuzendari nagusia

baita Osasun Sailarentzat ere, Euskara Plan berri hau mugarri edo zedarri garrantzitsua da eta horrexegatik egin dugu aurkezpen nagusia zerbitzu erakunde guztietako zuzendaritza taldeekin. Euskararekin dugun konpromisoa benetakoa dela erakutsi nahi dugu.

Zer dakar Osakidetzarentzat?

Onartu dugun Euskara Plan berria euskarri bat da Osakidetzako zerbitzu erakunde guztientzat; guztiek jarraitu beharreko bidea marrazten du. Aldi berean, gutxieneko batzuk ezartzen ditu erakunde guztientzat. Bestalde, Bigarren Plan honetan eremu euskaldunen artean normalizazioa neurrien abiadura eta erritmoa bizkortu egin nahi dugu.

Planak helburu nagusia betetzea ahalbidetuko digu: pazien-

teek arreta euskaraz jasotzeko duten eskubidean aurrera egitea, eta ahalegina egitea osasun asistentzia erabiltzailearen hizkuntzan (bai euskaraz, bai gaztelaniaz) egingo dela bermatzeko.

Nola irudikatzen duzu Osakidetzako euskararen egoera 2019an, Planaren bukaeran?

Osakidetzako euskararen egoera hobetuz joango da, gizartean ere euskararen egoera hobetuz doan moduan. Nahi genuke gizartearen eskaera baino pauso bat aurrerago joatea euskarazko zerbitzuak eskaintzeko orduan. Dena dela, euskararen normalizazioa ardura konpartitua eskatzen du, Osakidetzaren osatzen dugun guztion eta gizartearena. Aprobetxatzen dut, beraz, zuek guzti-guztiok animatzeko bide horretan lagun dezazuen.

Zer espektatiba dituzu Plan berriarekin?

Espektatibak onak dira, orain Osakidetzaren askoz ere egoera hobean dago Lehenengo Plana onartu zenean baino. Osakidetzako agintaritzan gaudenontzat, eta



**JUAN GONDRA
REZOLA**


Euskal Herriko Medikuntzaren historiaren gaineko aditua. Bilboko Udaleko Osasun Sailean, Basurto Ospitalean eta Medikuntza Fakultatean jardun zuen, besteak beste.



1a



1b



2



3



4



5

MEDIKUEN BIOGRAFIAK

ACHA ANAIAK

JOAN DEN UDABERRIAN, AZUELOKO SANTA ENGRAZIA ELKARTEAK HERRIKO BI SEMEREN OMENALDIA EGIN ZUEN: VICTOR ETA TOMAS ACHA BRIONES MEDIKUENA, HAIN ZUZEN ERE. AZUELOKO MEDIKU TITULARRA IZANDAKO SATURNINO ACHA GIMENEZEN SEMEAK ZIREN BIAK. LANBIDEARI DAGOKIONEZ, XIX. MENDEKO BIGARREN ZATIAN, DONOSTIAN LORTU ZUTEN OSPE HANDIA, ETA, ORAIN DELA GUTXI, EUREN EKIMEN NAHIZ JARDUERA **MIRESGARRIAK** HEDATU DIRA BERRIRO, URKIA DOKTOREAK ARGITARATUTAKO LIBURUARI ESKER.

Victor anaia zaharrak (Azuelo, 1845-Donostia, 1888) Valladoliden, Madrilen eta Bartzelonan egin zituen Medikuntzako ikasketak. 1869. urtean, **Itsas Osasungintzako** buru izendatu zuten, eta Donostia-
ra heldu zen. Harrigarria dirudien arren, hainbat jarduera garatu zituen epe laburrean. Horretaz aparte, bere kontsultan lan egin zuen 20 urtez, era guztietako zereginak garatu zituen bitartean:

- Donostiako laguntzaileen zerbitzu medikoa antolatu zuen.
- Osasuneko ordezkariordea izan zen.
- 'La Razón' aldizkari medikoa sortu zuen.
- Medikuen elkartegintza bermatu zuen intrusismoari aurka egiteko (horretarako, 1878. urtean, bilera antolatu zuen Zumarragan, eta 18 mediku zein 9 farmazialari batzartu ziren bertan).

- Bainu terapiari buruzko liburua argitaratu zuen, 'El Higiotrepo', eta 'La Perla' bainuetxea sortu zuen. 1885. urtean, agintariek Valentziara bidali zuten, hango kolera izurritea aztertzeko eta Ferrer doktoreak asmatutako txertoari buruzko txostena egiteko.

Medikuntzatik kanpo, Donostiako bizitza sozialean ere parte hartu zuen, udaleko zinegotzia eta alkateordea, Ateneoko burua eta Errepublikaren aldeko elkarteko burua izan zelako, besteak beste. Zoritxarrez, urte asko ez zituela, sabeleko minbiziak jota hil zen, ekimenez eta zereginez gainezka zegoenean.

Tomasek (Azuelo, 1858-Donostia, 1915) Madrilen ikasi zuen, hiriburuan, hain zuzen ere. 1890. urtean, Medikun-

ARGAZKIAK

- 1a.-Manuel Acha / 1b. Victor Acha**
- 2.-Datuak eta argazkiak Jose María Urkiaren 'Los doctores Acha' liburutik ateratakoak dira.**
- 3.-Urkia, omenaldian berba egiten.**
- 5.-Donostiako laguntzaileak: koro-
nela eta ofizialak.**

tzako Doktoretza lortu zuen. Harrezkero, Donostian hasi zen lan egiten, anaiaren eginbeharrei jarraipena emateko, eta lehengo lepotik eutsi zion lanari. Hala-
tan, La Perla bainuetxean, kontsultan, intrusismoaren aurkako borrokan... anaiaren **lekukoa** hartu zuen, baita Osasun Ordezkaritzan ere. Anaiaren antzera, Donostiako alkateordea eta zinegotzia ere izan zen, baita liberalen burua ere. Horren haritik, honako ekimen hauek garatu zituen:


- **Sorospen etxea** (1881).
- Umeen zaintza medikorako 'Esne Tanta' (1903).
- Desinfekzio Zerbitzua.
- Mediku titularren soldata igoera.
- Udal ongintzako txiroentzako laguntza medikoa.

Hala ere, bere eginkizunik eraginkorrenetakoa Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofiziala sortzea izan zen, eta honako bi helburu hauek zituen: intrusismoari aurka egitea eta medikuen egoera profesionala duintzea. Anaia hauek benetan merezi dute omenaldia egitea!

EPIDEMIAK EUSKAL HERRIAN

ASIAKO GRIPEA

XX. MENDEKO BIGARREN GRIPE PANDEMIA "ASIAKOA" IZAN ZEN, TXINATIK ETORRI ZEN-ETA. IZURRITE HORI BESTE ERA BATEKOA IZAN ZEN 1918. URTEKOAREN ALDEAN, BAINA, BATEZ ERE, BERE **LARRITASUNAGATIK**. OSO KUTSAGARRIA IZAN ARREN, BIGARREN IZURRITE HORREK LEHENENGOAK BAINO HILDAKO GUTXIAGO ERAGIN ZUEN, BAINA, LURRALDE GARAIETAN, BATIK BAT.



1957ko irailaren bukaeran, Euskal Herrira heldu zen, eta biztanleen herenak-edo kutsatu zituen. Badirudi 1918. urtea baino lehen jaiotakoak babestuta zeudela. Haurrek eta gazteek, berriz, kutsatzeko arrisku handiagoa zeukaten.

Gripe horren beste berezitasun bat agintarien erantzuna izan zen, hain zuzen ere. Frankoren diktadurak kalte guztiak estali edo gutxitu nahi zituen nola edo hala, baita izurriteak eragindakoak ere. Asiako gripeari buruzko informazio ofizialak oso lasaigarriak ziren. Izurritea heldu baino lehen, larritasunik ez zeukala zioten egunkari guztiek, eta horren aurkako txerto nahikoak geneuzkala. Ezta hurrik eman ere! Izurriteak irau zuen bitartean neurri bakarria hartu zen: botikak igandeetan irekitzeko baimena ematea. Era berean, gripea igaro ondoren, estatistikak makillatzeko edo "edertzeko" erabakia ere hartu zen.

Bilboko Udalaren argitalpenetan eta bileretako aktetan, adibidez, ez

zuten gripeari buruzko ezer aipatzen, ezta gripearen aurkako neurriez ere. Hori bai aldaketa! Izan ere, Erdi Arotik hasita Asiako gripea heldu arte, udalak berak izurrite mehatxu guztien aurrean zuzentzen zuen gaixotasunaren kontra borroka.

Gobernuak gripearen aurkako neurriak hartu ez zuenez, medikuek eta gaixoez euren kabuz garatu behar izan zituzten gripeari aurre egiteko ekintzak, eta batzuk oso zorrotzak eta kaltegarriak izan ziren.

Estatistika ofizialak itxuraldatu zituzten arren, hildakoen erregistroak arakatu ondoren, gripea hain **onbera** izan ez zela egiaztatu zuten. Bilbon, esate baterako, 165 inguru lagun hil ziren gripeagatik edo bronkopneumoniagatik. Dena dela, Bilboko estatistikak hiru hilean behin argitaratzen zirenez, hilkortasun tasaren igoera hori hirugarren eta laugarren hiru hilekoen artean banatu zuten, nabarmendu ez zedin.

ARGAZKIAK

- 1.-'El Correo Español El Pueblo Vasco' egunkariko iragarkia.
- 2.- I. Sputnika, lehenengo satelite artifiziala. Gripea Bilbon sartu zeneko egun berean jaurti zuten. Horregatik, norbaitek 'Sputnika' zeritzon Asiako gripeari.
- 3.- Olmoren marrazkia, 'La Gaceta del Norte' egunkarian.
- 4.- 'El Correo Español El Pueblo Vasco' egunkariko iragarkia.

Edertu: *adornar.*
Itsas Osasungintza: *Sanidad Marítima.*
Larritasun: *gravedad, magnitud.*
Lekukoa hartu: *coger el testigo, suceder a alguien en algo.*
Onbera: *benigno/a, buenola.*
Miresgarri: *prodigioso/a, maravilloso/a, milagroso/a.*
Sorospen etxe: *casa de socorro.*

JARDUNALDIA

EUSKADIKO OSASUN MENTALEKO ERIZAIN ESPEZIALISTEN III. TOPAKETA



“EUSKADIKO OSASUN MENTALEKO ERIZAIN ESPEZIALISTEN III. TOPAKETA” OSPATU DA BILBON, URRIAREN 3AN; IZENBURUA HAUXE IZAN DA: “JARRAIPEN ETA ARRETA OSOAREN ALDE”. JARDUNALDI HAUEK HISTORIA DUTE. ATZERA EGINEZ GERO, LEHENENGO TOPAKETA DUELA 23 URTE EGIN ZEN, GASTEIZEN. 1988KO EKAINAREN 16AN ETA 17AN, “DESDE LA ENFERMERÍA EN SALUD MENTAL; PRIMERAS JORNADAS DE TRABAJO” IZENBURUPEAN ANTOLATU ZUTEN ARLO KOMUNITARIOKO ERIZAINEK.

Garai hartan aldaketa izugarria gertatu zen osasun mentalaren arloan desinstituzionalizazioa zela eta. Desinstituzionalizazioaren ondorioz, ordura arte luzaroan ospitale psikiatrikoetan zeuden gaixoak komunitatera itzuli ziren, eta osasun mentaleko arlo komunitarioa sortu zen.

Hori zela eta, erizainak kezkatuta zeuden, eta jardunaldiak oso baliagarriak izan ziren, besteak beste, prestakuntzaz eta birziklatzeaz eztabaidatu eta beste probintzia batzuetako esperientziak partekatzeko; izan ere, Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako erizain espezialistak bildu ziren.

Aipatzekoak dira txostengileen artean izan ziren aditu batzuk: Peter

Mellor, Londresko Erizainen Elkargoko irakaslea, eta Luis Cibanal, Ginebrako “Le Bon Secours” Erizaintza Eskolako irakaslea; kontuan izan behar dugu garai hartan Suitzan eta Ingalaterran aitzindariak zirela osasun mentalaren arloan. 2011n erizain berak bildu ziren berriro, eta lehenengo topaketari **jarraitutasuna** ematea erabaki zuten. Horretan, Arabako Osasun Mentaleko Sarea AOMS sortu berria zen, eta, ordurako, ospitale psikiatrikoa jadanik barne zegoen.

2011ko urriaren 6an, II. topaketa ospatu zen Gasteizen. ‘Osasun Mentaleko arreta komunitarioaren bilakaera, aurrerapenak eta erronkak’ izenburua

PARTE-HARTZAILEAK

Ana I. Rodríguez, Izaskun Eraña, Aitziber Ubis eta Ana Chueca.

zuen topaketa hartan 50 lagun inguru bildu ziren.

Topaketa hartan, 23 urte haietan gertatutako aldaketak azaldu zituzten lehengo erizain batzuek: Flora Muruak, Jaione Benedictok, Arantza Zurriarainek eta Marixa Larreinak, hain zuzen. Beste hiru erizainek beren eguneroko lanaz jardun zuten eta programa berezi batzuk ere azaldu zituzten. Ekitaldiari bukaera emateko, Osakidetzako Erizaintzako aholkulariak, M^a Jesus Ruiz de Ozendak, parte hartu zuen azkenengo txostenean.

Oraingo honetan, berriz, topaketa bi urterik behin eta probintzia ezberdinetan egitea erabaki zen. Memento hartan BOMSek (Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea) hartu zuen hurrengo lana.

Aurten, urriaren 3an, “Jarraipen eta arreta osoaren alde” izenburupean, Bizkaiko **Medikuen Elkargoan** antolatutako jardunaldian Bizkaitik, Arabatik, Gipuzkoatik eta Nafarroatik etorritako 170 erizain inguru elkartu dira.

“Atzera eginez gero, lehenengo topaketa duela 23 urte egin zen, Gasteizen. *'Desde la enfermería en salud mental; primeras jornadas de trabajo'* izenburupean antolatu zuten arlo komunitarioko erizainek”.

“2011ko urriaren 6an, II. topaketa ospatu zen Gasteizen. 'Osasun Mentaleko arreta komunitarioaren bilakaera, aurreapenak eta erronkak' izenburua zuen topaketa hartan 50 lagun inguru bildu ziren.

Aurtengoan, Erizaintzako zuzendariorde aholkulari Ana Chuecak egin du **harrera**.

Jarraian, Naia proiektuko lantalde teknikoko aholkulari batek, Aitziber Ubisek, Osanaia aurkeztu du. Osanaia, izatez, erizaintzako plataforma informatiko berri bat da, erizaintzako arreta prozesua eta pazienteen zainketen plana kudeatzeko.

BOMSeko lan **erronka** bat Gaixotasun Mental Larria (GML) da, eta horixe izan da topaketaren hari nagusia, Izaskun Erañak (BOMSeko arlo komunitarioko erizaintzako adjuntua) esan duen bezala. Bitarteko ezberdin batzuetako erizainak beraien eguneroko lanaz aritu dira, eta GML duten gaixoekin egiten duten lana eta beraien programa berezien ezaugarriak azaldu dituzte.

Esther Mungiak, Gipuzkoako Unitate Terapeutiko Hezitzailean lan egiten duen erizainak, umeekin egiten duen lana aurkeztu du.

AOMSeko Isabel Alonsok 'Ezagutza berritu, kudeatu eta zabaltzeko taldea' izenekoaren berri eman du.

Aipagarria da aurtun jardunaldiaren programan erabili den marrazkia

“Aurtun, urriaren 3an, 'Jarraipen eta arreta osoaren alde' izenburupean, Bizkaiko Medikuen Elkargoan antolatutako jardunaldian Bizkaitik, Arabatik, Gipuzkoatik eta Nafarroatik etorritako 170 erizain inguru elkartu dira.

“Aurtun jardunaldiaren programan erabili den marrazkia BOMSeko erabiltzaile batek egindakoa da eta txostengileentzako opariak Bermeoko Eguneko Ospitaleko pazientek eginak dira.

BOMSeko erabiltzaile batek egindakoa dela eta **txostengileentzako** opariak Bermeoko **Eguneko Ospitaleko** pazientek eginak direla. Eguneko ospitale horretan egiten dituzten bitxi batzuk **-arrakadak**, eskumuturrak, eraztunak, ilean ipintzekoak- salgai jarri dira, eta erabiltzaile batzuk erostera etorri dira. Izugarritzko arrakasta izan du bertan antolatu den azokatxoak.

Jendea pozik gelditu da eta, jarraitutasuna ematea merezi duenez, ekitaldiaren amaieran BOMSeko Erizaintzako zuzendari Ana Rodriguezek hurrengo antolatzeko konpromisoa jaso du Gipuzkoako erizain batzuegandik.

Egileak:

M^a del Puy Lopez Zabarte eta Marta Garcia Garcia (BOMSeko gainbegiraleak)

Arrakada: *pendiente.*

Eguneko Ospitale:

Hospital de Día.


Elkargo: *colegio.*

Erronka: *reto.*

Harrera: *acogida, recibimiento.*

Jarraitutasun: *continuidad.*

Txostengile: *ponente.*



Osatuberri
UDAKO POSTAL LEHIAKETA



POSTAL LEHIAKETAKO SARIAK, EZKERRALDERA

AZARO BUKAERAN OSAKIDETZAKO EUSKARA ZERBITZUAK OSATUBERRI UDAKO POSTAL LEHIAKETAKO SARIAK BANATU ZITUEN BILBON. EZKERRALDEKO NURIA REVILLA ETA MERCEDES GARCIA IZAN ZIREN IRABAZLEAK, ETA BIEK EUSKARAZKO LIBURU SORTA EDERRA JASO ZUTEN. BIZKAIKO EZKERRALDEAN ERE EUSKARAREN ERABILERA HANDITZEKO LANEAN ARI DIRELAKO ADIBIDE AGERIKOIA.

Lehenengoa aldia da *Osatuberri* aldizkariaren bitartez Osakidetzako Euskara Zerbitzuak postal lehiaketa antolatzen duena. Uda abiapuntu hartuta, Osakidetzako hainbat profesionalak beraien oporraldien berri eman dute *Osatuberri*-ren bitartez. Huesca, Kantabria, Iparraldea, Valentzia, Ezkerraldea, Landak, Kanariar Uharteak, Italia...

Lehiaketako irabazleak, Nuria Revilla eta Mercedes Garcia, Ezkerraldekoak dira biak. Lehena, erizaina da eta langabezian dago une honetan; Garcia, berriz, medikua da. Biek ala biek aitortu digute beraien ingurune hurbilean eta lanean euskaraz hitz egiteko aukera gutxi izaten dutela. Hala ere, egunero-egunero ahalegintzen dira euskaraz egiten, eta, hala, lehiaketan parte hartu dute. Revillak egunero ikusten duen Bizkaia Zubia erakutsi digu, eta etxe alboan gauza ederrak ditugula irakatsi. Garciak, berriz, Getxoko kostaldea erakutsi eta poesia bat idatzi du. Zorionak bioi, eta segi euskaraz!



EUSKARAREN EGUNA OSAKIDETZAKO ERAKUNDEETAN

ABENDUAREN 3AN, URTERO LEGEZ, EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA OSPATU ZEN, ETA OSAKIDETZAN ERE, ZENBAIT ZERBITZU ERAKUNDEETAN EUSKARA ZERBITZUEN EKIMENEZ, HAINBAT JARDUERA EGIN ZIREN EGUNA OSPATU ETA EUSKARA GEHIAGO ERABILI DADIN **ALDARRIKATZEKO**. GERO ETA JENDE GEHIAGO BATUZ DOA ALDARRIKAPEN HORREN INGURUAN.

Gasteizko Erakunde Zentralean kafe topaketa egin zuten. 30 lagun batu ziren deialdiari erantzunez, eta Osakidetza zuzendari nagusiaren ongi-etorriaren eta agurraren ondoren, seiko taldeetan banatuta, honako galdera honi erantzun zioten: 'Zer ekintza antolatu daitezke Era-

kunde Zentralean euskararen erabilera eta presentzia handitzeko?' Proposamenak **askotarikoak** izan ziren eta lagun-garri izango dira erakundearen Euskara Plana idazteko orduan. Parte hartzaile guztiei 'Euskaraz bai sano!' leloa duten **katiluak** oparitu zizkieten. Gainera, egun osoan, egoitzako sarreran arbel handi bat jarri zuten euskararen inguruko iritzia emateko. Mendaroko Ospitalean ere 30 lagun batu ziren mahaiaren inguruan eta 'Zer behar duzu lanean euskaraz egiteko?' galderari erantzun zioten. Jasotako emaitzak Debabarreneko ESIaren hurrengo euskara planean **txertatuko** dituzte. Donostia Ospitalean ere mahaiaren eta kafearen bueltan jarri eta 25 lagunek 'Profesional eta erabiltzaileen arteko

EUSKARAREN ALDE Osakidetza erakunde askotan kafe topaketak eta bestelako ekintza parte-hartzaileak egin zituzten.

harremana euskaraz' gaia izan zuten hizpide. Txagorritxu Ospitalean, ostiralero kafe orduan euskaraz hitz egiteko elkar-tzen diren zenbait lagunek euskal kafea antolatu zuten; Euskararen Egunean, nola ez, euskararen egoera izan zuten mintzagai. Zumarragako Ospitalean ere izan ziren ekitaldiak: 80 lagun batu ziren eta post-it-etan idatzi zituzten euskarari buruzko ideiak.

Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean, aldiz, osasun mentala eta euskara lotzen dituen leloa asmatu zuten. Langileek bidalitako leloen artean 'Burua zaindu, euskara landuz!' leloak jaso zuten boto gehien, adituen esanetan, hizkuntzak lantzeak buruarentzako onurak omen dakartza eta.

Galdakao-Usansolo Ospitaleak eta Berrualdeko Eskualdeak eskutik helduta ekintza bi antolatu zituzten: alde batetik, euskararen eta ospitalearen arteko lotura egiteko animazioko bideoa egin zuten, 'Osasuntsu egoteko, gaixoak zaintzen ditugun moduan, euskarak ere gure babesa eta **bultzada** behar du sano egon eta aurrera egiteko; erabili egin behar da' erreferentzia hartuta. Beste alde batetik, Galdakaoko Ospitalean, Durangoko Anbulatorioan, Gernikako Ospitalean eta Berrualdeko Eskualdeko zenbait osasun zentrotan ideien murala antolatu zuten, eta paziente, bezero zein langileek aukera izan zuten 'Zer egingo dugu euskara zaintzeko?' galderari erantzun eta euren iritzia azaltzeko. Bestalde, Bilbo Eskualdean eguerdian 30 bat lagunek luncha egin zuten eta euskal kantuek abesten aritu ziren. Gainera, Euskararen Eguna-harira mezua bidali zieten langile guztiei. Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean buletin digitala bidali zieten langileei.

Aldarrikatu: *reivindicar, reclamar, exigir.*

Askotariko: *variado/a, diverso.*

Bultzada: *empujón, impulso.*

Katilu: *taza, tazón.*

Txertatu: *incluir, insertar, incorporar.*



PLENTZIA, PAISAIA ETA HISTORIA ONTZI TXIKI BATEAN

PLENTZIA URIBE KOSTAN DAGO, MUINOZ INGURATUTA; ALTUENAK ZABALA-ONDO (213 M) ETA KUKUTXA (109 M) DIRA. BETIDANIK ITSASOAREKIN OSO LOTURA ZUZENA IZAN DUEN HERRI HONEK ONTZIGINTZAKO INDUSTRIA GARRANTZITSUA IZAN ZUEN IRAGANEAN, ETA AZKEN MENDEAN BARNEKO TURISMOAK ELIKATZEN DU, BATEZ ERE DUEN HONDARTZA HANDIAK ERAKARRITA.

Plentziak pasealeku eta **badia** ederrak ditu, udan zein beste urtarotan gozatzeko modukoak. Gainera, metro bidez ere heldu daiteke bertara eta jende askok bisitatzen du, udan batez ere, baina beste sasoi batzuetan ere bai.

Historia esanguratsua du Plentziak. Butroiko Plazentiarren hiribildua 1214 eta 1236 urte bitartean sortu zen Butroi itsasadarraren azken menderoaren gaineko **barrendegi** estrategiko batean. Duen kokapen apartari eta bertako **ontzigintzaren** garapenera esker bere portua Kantauri Itsasoko garrantzitsuenetako bat bilakatu zen.

Baina arrantzagatik baino gehiago ontzigintzagatik nabarmendu zen Plentzia. Gaur egungo plazan eta Zugaitz bidearen erriberan **ontziolak** zeuden. XVI. mendea haien garai distiratsuen izan zen, eta XVIII. mendean oraindik ere itsasontziak eraiki zituzten, 280 tonakoak ere bai.

Udalerrria osatzen duten auzoak nahiko sakabanatuta daude geografikoki; honako hauek dira: Saratxaga, Isuskitza eta Erdigunea. Erdiguneari

dagokionez, ondo bereizitako hiru eremu ditu: Erdigune Historikoa, Txipio eta Zabalgunea.

Plentziako erdigune historikoa jatorrizko Erdi Aroko egitura gordetzen du, hiru kaletan. Barrenkale, Artekale eta Goenkale itsasadarrerikiko paralelo daude. Behealdean itsasadarra dago, eta goialdean Plentziako eraikin aipagarrienak biltzen dituen Enparantza Laua (Santa Maria Magdalena eliza, Butroetarren antzinako dorrea eta Santiago arkua, harresi zaharraren aztarna bakarra).

Antzinako Udalerrriaren eraikina nabarmentzeko modukoa da. Torreon izeneko eraikina udalerrriaren elementurik zaharrena eta adierazgarriena da. **Harlanduzko** egitura bikaina dauka, zirkulu Erdiko arkua duen sarbidea eta horren gaineko burdin hesiko balkoia dira nabarmentzen diren elementuak. Gotikotik Errenazimendura arteko trantsizioaren arkitekturaren estilokoa, XVI. mendean egin zen, eta 1992ra arte udaletxea izan zenez, hiribilduko armarrria eta Errege Katolikoen armarrria ditu aurrealdean.



URTE OSOAN GOZATZEKO MODUKO ITSASADARRA

Plentziako itsasadarra, Arbinako presa gaineratik, San Balendin kanalean eta Arkotesen (kai muturra) itsasoratu arte ontzi txikientzat nabigagarria da gaur egun ere. Itsasadar horren paisaia marrazten duen eraikin deigarrienetako bat 'Zubi berria' deritzona da. 150 metro luzeko pasabide luzexka zuria da, Javier Manterola arkitektoak diseinatu eta zubi zaharraren ordez egindakoa. 1983ko abuztuko uholde larrietan Butroi ibaiak zubi zaharra hautsi zuen. Horregatik, geroa, 1991n zubi berria eraiki zuten.

Itsasadarraren eskuinaldean bada, gainera, pasealeku polit bat, han-hemen ageri diren txalupatxoekin apaindua. Bokalean, berez sortutako badia zoragarri bat dago, Plentziako Badia. Bizkaiko hondartza handienetako batez hitz egiten ari gara, aspaldidanik bilbotar eta beste herri askotako bizilagunentzat oso preziatua dena. Are gehiago, bilbotar askok bertan daukate udako etxea.

Badia: *bahía.*

Barrendegi: *enclave.*

Harlandu: *sillería.*

Hiribildu: *villa.*

Ontzigintza:

construcción naval.

Ontziola: *astillero.*

Hobeto
sentitzen
zara?

Euskaraz
bai sano!



**Ikur hau ikusten
duzunean egizu
euskaraz sano!**

Donde veas este símbolo podrás
ser atendido en euskera



Osakidetza



euskaraz
bai sano!

